

uk

79. zenbakia / 2005 apirilak 26



MAIATZAREN 8AN.....SENPEREN

HERRI URRATS 2005

Urrats biziz Euskara biziz



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Zaldi-probak Berangon. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Portu zaharra, 1890-2005.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Txomin Arrieta, metro gidaria. A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Herrietako kartelak, Asier Mentxaka.
26. ERREPORTAJEA. Saharako umeak gurean, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Paella Egunean, Iker Elorriaga.
30. BERBETAN. Koldo Serra, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Afrika beltzean, Gonzalo Iribarnegaray.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Juanma Bajo Ulloaren azkena.
43. MUSIKA. R13 taldean lehenengo diskoa. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Periferiak* bilgunea. Liburuen erreseinak.
45. KIROLA. Getxo Rugbyren emakumezkoen taldea.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Rafael Sarria. Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Non erosi? Adibidez, Areetako La Modernan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gorlizko Aratz Dantza Taldea, 1980. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Aurora Beltran. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Gonzalo Iribarnegaray (Rastastafaria Gambian)



30 Koldo Serra

Berbetan


Bere lehenengo film luzearen errodajea prestatzen dabil Getxoko gure promesa zinematografikoa. Kuxkuxean ibili gara beragaz.



46 Rafael Sarria



19 Aloña Aranaga



46 Herrietako kartelak



34 Gambia



54 Aurora Beltran

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza.....**maiatzak 9**
Redentor elizako parkinean.....**maiatzak 17**
Algortako anbulatorioa.....**maiatzak 16**
Areetako anbulatorioa.....**maiatzak 10**
Erromoko kultur etxea.....**maiatzak 19**

Informazioa: 900 720 389

Zatoz odola ematera, ez itxaron!



etorri
eta
ikusi!!

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearen hasia)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentakak
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti,
Bittor Eguroia, Itxaso Arana, Gaizka Escudero,
Xabier Bilbao, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Unai Amezaga,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarlea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaldea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarlearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkarlearen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eroski Fundazioaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Familia eske

Ondo -edo behintzat hori pentsatu nahi genuke- ezagutzen ditugu euskaldunok herri sahararrak azken 30 urte luze hauetan sufritu dituen bidegabekeria guztiak. Herri oso bat herbestean eta ez nonahi, basamortu gorrian. Nekez imajina daiteke zein baldintza latzetan egin behar dioten aurre egunerokoari. Nazioarteko elkartasunari esker bizi dira. Baina ez nazio edo estatuen elkartartasunari esker. Izan ere, bai Espainiako estatua, bai Frantziakoa Marokoren aliatu handiak dira eta hau horrela izanik nekez izango du irtenbide zuzenik sahararrek pairatzen duten injustiziak.

Eta gatazka guztietan gertatzen den bezala, biktimarik handienak ahulenak izaten dira beti: gaixoak, agureak, haurrak... Basamortua berez gogorra bada, udan are gogorragoa izaten da. 50 gradutik gorako tenperaturak sufritzen dituzte sahararrek Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan. Umeak, bi hilabetez bada ere, infernu horretatik ateratzeko ekimena abian jarri zuen Polisarioak hainbat erakunde eta elkartasun talderekin. Orain gure eskualdeko elkartasun taldeak eta erakundeak umeak gurera ekarri ahal izateko familia bila ari dira. Eta pentsa genezakeenaren kontra, estu ibili dira ume sahararrak udan hartuko zituzten familiak lortzeko. Antza, bestela eman dezakeen arren, ez omen gara hain solidarioak.


Gure zilbor hesteari begiratzen bizitzeko ohitura handia daukagu euskaldunok, gure arazoak munduko handienak balira bezala nahiz eta horrela ez direla ederto jakin. ⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero irakurri > berria

[irudia]

BERANGOO, 2005-04-04

Zaldi-probak Berangon / Indarra eta abiadura, horiek dira autoentzako zaldiak dauzkan esangurak. Zaldiak iraganean eta orain -zelan edo halan- garraiorako erabilgarri, bidea egiteko lagungarri. Ibilbide itxian hariari tiraka zeinek bitartea lehenenago egin da zaldi-proben gakoa. Zaldia begirada denen jomuga; baina zaldia garailu? Bide batez, ekar dezagun esatera zaharra gogora: “Urrun nahi duenak heldu, ez du behar zaldia lehertu”. / Argazkia: **Asier Mentakak**

Leihatila
> Maddi Albizu
Burbuila
inmobiliarioa

Dirudienez Espainiako Bankuak eta Nazioarteko Moneta Fondoak estreinako aldiz onartu dute Espainiako estatuan burbuila inmobiliarioaz lasai-lasai hitz egin daitekeela. Gaur egun, etxebizitzaren prezioaren gainbalorazioa %30ekoa da, hauek egin duten txostenaren arabera. Hau da, etxebizitzaren prezio osoaren %30 ezin liteke azaldu eraikuntzako langileen lantsariaren igoerarekin, lurzoruaren balioaren igoerarekin edota lehengaien prezioaren igoerarekin. Beste era bateko arrazoietara jo beharko omen genuke, hortaz, bizitzeko denok behar ditugun lau horma eta sabai horien gehiegizko prezioa zertan datzan jakiteko: espekulazioa. Beren txostenean, itzelezko “aurkikuntza” honetaz gain, zera gaineratzen dute: joera honetan luzaroan jarraituz gero prezioen jaitsiera dramatikoak gertatzeko arrisku handia dago. Beste era batera esanda, zenbat eta beranduago gelditu prezioen igoera orduan eta handiagoa izango da hartuko dugun muturrekoa.

A.W. Tucker matematikoak “presoren dilema” izeneko asmatu zuen 1950an. Luze joko lukeenez oso-osorik azaltzea dilemaren tesi nagusiraino joango naiz zuzenean: matematikoki frogatzen du zenbait egoeratan norberaren onurari begira jokatu beharrean hobe genukeela besteekin lankidetzan aritzea, hartara denontzako etekina handiagoa izan daitekeelako. Etxebizitzaren gaiari teoria hau aplikatuz gero, nik honako konklusio hau ateratzen dut: iritsi da etxebizitza interes publikoko ondasuntzat hartzeko garaia. 4

photoshop > Amintzako basamortua



IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau egin diogu Joseba Butron irakasleari. Galdera bera luzatuko diegu UK-ko hurrengo zenbakietan eskualdeko lagun gehiagori.

Zer behar da herri honek bakea lortzeko?

Bakea, hitz ederra; denon irrika, denon ametsa. Bakean bizi nahi dugu, *«Ze munduan den tristeena da bizitza ia ohartu orduko pasatzen dela, eta susmatzen dut bi edo hiru edo hamaika bizitza behar genituzkeela benetan bizi izan garela esan ahal izateko»*. (Sarriñandia)

Euskaldunok bakea nahi dugu, izan, bakezkoak garelako. Horretarako, ordea, askatasuna behar dugu, normaltasunez bizi ahal izateko, eskubidedun pertsonak izan ahal izateko, garena izan ahal izateko; askatasuna Euskal Herrian bakean bizi ahal izateko, harmonian, munduko gainontzeko pertsona libreekin. Maila berean, eskubide berberekin.

Hala ere, batzuei askatasunaren kontzeptua ulertzen zaila egiten zaie: “Ni euskalduna naiz eta libre sentitzen naiz”. Ba, oso ondo. Pasaportean, karneteen espainiarra dela ipintzeak ez die arazorik sortzen; ofizialki Espainiakoak edo Frantziakoak direla jakiteak ere ez. Ondo dago. Libre sentitzen badira, bada, ez dago arazorik, badakigu gure gizartea askotarikoa dela, plurala. Arazoa, ordea, zera da:

eta euskaldun askok onartzen ez badugu guri hori inposatzea?: “Zu Espainiakoak zara, eta espainola”, edo Frantziakoak eta frantsesa. Kontxo, baina... “Ez, ez, ez. Edo hori, edo hori”. Badakizu, bakea nahi baduzu “onartu” egoera, zure gurasoek “onartu” behar izan zuten moduan, zure aitita-amamen moduan, zure... Historia luzea da.

Izan ere, kontzientzia izatea arriskutsua da, nazio aske bateko biztanle askeak izan nahi izateak bakea hausten omen du, subertsiboa da. “Terrorismoa” ere eragin dezake. Horregatik, gure menperatzaileek mendeak daramatzate guri hilerrietako bakea ezarri nahian. Eta beste batzuek, hemengo sumisoek, dena konpatiblea dela irakatsi nahi digute: botere apur baten truke, jasan daiteke.

«Kontzientzia izatea arriskutsua da, nazio aske bateko biztanle askeak izan nahi izateak bakea hausten omen du»

Edozelan ere, irtenbideak badira. Esaterako: *«Espainiako eta Frantziako presidenteeek, beraien gobernuen izenean, berretsi dute Euskal Herriko gizartearen gogo demokratikoa errespetaraziko dutela. (...)*

Espainiako eta Frantziako Gobernuak onartu dute Euskal Herriko biztanleriari dagokiola, bi aldeek akordioaren ondorioz, bere autodeterminazio eskubidea gauzatzea, horren oinarrian iparraldean eta hegoaldean borondatez eta aldi berean emandako onespina egongo litzatekeelarik. Eta azpimarratzen dute azaldutako hori guztia egia bihurtzeko auaudia martxan jarriko dutela eta, aldi berean, neurriak hartuko dituztela Euskal Herrian bizi den gizarteak kanpoko eragozpenik gabe aukeratzeko ahalmen askea izan dezan.»

Downing Streeteko adierazpena da hori, 1993koa, laburtuta eta izenak egokituta bakarrik. Ipar Irlandara bakea ekarri du. Ez arazo guztien konponketa, baina bai bakea. Bakea. 4

Joseba Butron (irakaslea)



EUSKAL MUSEOA, BILBO



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / PORTU ZAHARRA 1890-2005

* **Denbora**: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.


begizorrotz > animaliekin gora eta behera

Onartzen dugu, bai, zelatan egotea, begiak zabal-zabalik edukitea gustatzen zaigu, eta apur bat zirikatzea ere bai. Bada, gehienok ederto ezagutzen dugu hispanitate narrasenaren sinbolo bihurtu den Osborne zezenaren irudia, auto askoren atze aldean itsatsita ikusten dena. Katalunia aldean sinbolo honi aurre egiteko edo, asto katalanaren irudia sortu zuten. Hara doanak nonahi ikusiko du asto sinpatiko honen irudia. Euskal Herrian ere animaliairen bat ikur moduan hartu beharko genukeela otu zaigu guri. Baina zein ordea? Txerria esan du batek erredakzioan; ardia erantzun dio beste batek, baina beltza izan dadila gaineratu du hirugarrenak. ^m



Autoetan itsatsirik eskualdean topatu ditugun pegatinak

euskara > itzulpenak



Badakigu argazkiak oso tamaina txikian ipini ditugula, baina biek erakusten dituzten testuak konparatzeko ahalegina egitea merezi duelakoan gaude. Algortan hartu ditugu argazkiok. Pozgarria da merkataritzan euskararen presentzia, apurka-apurka bada ere, gero eta handiagoa dela ikusi ahal izatea. Baina gure uste apalean, gaur egun, borondate ona ez da nahikoa. ^m

kale izendegia > Areetako Venancio Etxebarria



Balmasedan 1880an jaio zen finantzari honek zuzenbide ikasketak hasi zituen, baina aita hil zitzaionean utzi egin behar izan zituen bere negozioen ardura hartzeko: Terminus izeneko hotela, Echeverria Bono upeltegiak eta zinema-kate bat. Getxoko Udaleko zinegotzi izan zen 1911tik 1930era bitartean, baita alkateorde ere sei urtez. Tomas Urkijoren bitartez, Bizkaiko Bankuan sartu zen 1915ean, eta 28 urte luzez banketxe horretan jardun zuen hainbat kargutan (Zuzendari Nagusi, esaterako). Bizkaiko Bankuko ordezkarri legez izen handiko enpresa askoren kontseilari izan zen: Campsa, Bizkaiko Labe Garaiak eta Babcock & Wilcox, besteak beste. Venancio Etxebarria 1943ko otsailaren 12an hil zen Madrilén, eta handik egun bira Getxoko udal hilerrian ehortzi zuten. Areetan dago bere izena daukan kalea. ^m

Argazkian, Areetako Venancio Etxebarria kalea



“Gure artean txantxetan esaten dugu hegazkinek baino bidaiari gehiago eroaten ditugula, baina ez daukagula azafatarik”

Txomin Arrieta > metro gidaria

Metro Bilbaok daukan 145 gidarietako bat dugu, Sopelanan hasi ohi du bere laneguna goizeko 5:30ean edo 6etan, eta 180 kilometro egiten ditu egunero batezbeste. Hala ere, Txomin Arrieta (Algorta, 1975) mantentze-teknikari posturako aurkeztu zen Ezkerraldeko linea irekitzeaz zeudenean: *“Baneukan horretan eskarmentua, baina prozesuaren amaieran gidari izatea eskaini zidaten. Nire hasierako asmoa hori ez zen arren, orain pozik eta gustura nabil”*. Urdulizko lantegietan teoria ikasi ostean (seinaleak ezagutu, zer esan gura duten, matxura batzuk konpondu, etab.), metro gidarien ondoan egin zituen praktikak. Eta azkenean, 2002ko urtarilaren 14an, berak bakarrik hartu zuen “bolantea” (Bilboko unitateek sistema automatizatua erabiltzen dute normalean). Txomini ez zaio iruditzen bere beharra oso zaila denik, *“baina bai erantzukizun handikoa. Tren bete batek ia 800 lagun eroan ditzake. Gure artean txantxetan esaten dugu hegazkinek baino bidaiari gehiago eroaten ditugula, baina ez daukagula azafatarik”*. Latzena txandaka behar egitea dela uste du, *“familiagaz eta lagunakaz bat egitea oso zaila delako”*. Alabaina, bitxikeriak ere gertatu izan zaizkio beharrean: *“Urrutira joan barik, pasa den astean bizikleta bat kendu behar izan nuen trenbidetik”*. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Liburutegien

iazko denboraldia
iazko **maileguetatik euskarazkoak %9,6** bakarrik izan ziren,
azken 4 urteotako portzentairik **baxuena;** guztira ia 61.000 ale
eman ziren maileguz, **euskarazkoak 5.813**

Getxoko udal liburutegietako arduradunek azaldutakoaren arabera, pasadan urtean 200.000 bat lagunek gozatu zuten lau liburutegien zerbitzuez; 2.360 bazkide berri dauzkate (guztira 14.535); 5.258 ale berri ipini zituzten apaletan (denetara ia 77.000 bat liburu, DVD, bideo, CD etab. daude), Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalen sartu ziren; “Liburu ibiltariak” izeneko zerbitzua ipini zuten martxan...

Getxoko kultur etxeetako lau liburutegiek (San Nikolas, Villamonte, Areeta eta Erromo) 61.000 ale eman zituzten maileguz 2004an (liburu, DVD, CDak... barne). Aurreko urteko maileguen kopuruagaz alderatuz gero (54.000, 2003an) %11 egin zuen gora maileguen zenbatekoak. Maileguz emandako ale kopuruaren %9,6 bakarrik izan ziren euskarazkoak: 5.813. Hala, azken lau urteotako por-tzentairik baxuena da: %10,3 2000n, %10,6 2001ean eta %11,2 2002an eta 2003an. Dena dela, portzentaia behera egin badu ere, utzitako euskarazko aleen kopuruak gora egin du 2000tik hona: 4.612 ale utzi ziren 2000n, eta 5.813 ale 2004an. Hala ere, 2003an utzitakoak (6.012 ale) baino gutxiago izan ziren iaz. Bestalde, liburutegiek utzitako libururik irakurrienak hurrengoak izan ziren: euskaraz “*Bakarka*” (J. A. Letamendia) eta



Algortako San Nikolas plazako liburutegia

“*Soinujolearen sementa*” (Bernardo Atxaga); gaztelerez, ostera: “*El código Da Vinci*” (O. Brown) eta “*La Abadesa*” (Toti Martínez de Lezea).

«**Liburu ibiltariak zerbitzua datorren hilabetean ipiniko dute martxan**»

Berrikuntza bi
Getxoko 4 udal liburutegiak Eusko Jaur-laritzak sustatutako Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barruan sartu dira. Horrek abantaila ugari eskaintzen ditu: sarea osatzen duten liburutegi guztietarako txartela bakarra da eta Internet bidez beste liburutegietan sartu, katalogo-ak ikustea etab. ahalbidetzen du. Horrez gain, Getxoko liburutegiek “*Liburu Ibiltariak*” deituriko zerbitzua

ipiniko dute martxan: 4 liburutegietako batean dagoen liburu bat irakurleak hurbi-len eta egokien daukan liburutegian esku-ra dezake eskaintza honen bitartez.

Amaitzeko, azterketa garaian ikasleentzako eskaintza berezia egoten da: gela gehiago zabaltzen dira (529 leku), ordutegia luzatzen da... Otsailean 27.342 ikaslek erabili zituzten gelok, ekainean 47.000 lagunek eta irailean 28.200ek. m

Liburutegian dagoena

- **74.500** liburu eta aldizkari, egunkari...
- **358** CD, casset...
- **1.231** DVD, bideo...
- **2.360** bazkide berri.
- **14.535** bazkide guztira.

Santa Eugeniako

aurpegi berria
Plaza eta alboko kaleak urbanizatzeko egitasmoa auzotarrei aurkeztu die Getxoko Udalak



Plaza gaur egun zertan den

Erromoko Santa Eugenia plaza eta inguruko kaleak urbanizatzeko egitasmoa aurkeztu du Udalak. Auzotarrek proiektua ezagutzeko eta iritzia emateko aukera eduki dute orain dela gutxira arte, eta euren aburuak kontuan hartuta egitasmoak aldaketak jasan ditzakeela adierazi du Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa.

Udalaren proiektuak 5.500 metro koadroko azalera hartzen du: plazaren 2.747 metro koadroak, eta gainontzekoak alboko kaleetakoak dira (Ezekiel Agirre, Aurrezki Kutxa eta Kresaltxu). Egiteko horretarako behin-behineko aurrekontua 1.200.000 eurokoa da, lanak uda aldean hastea espero dute eta urtebetean amaituta egotea. Santa Eugeniako plazaren erdialdea laranja kolorekoa izango da, izokin-kolorekoa hain zuzen, izkinak granitoz-

koak eta inguruko baldosak grisak.

Bi pergola edukiko ditu

Guztira 500 metro koadroko berdegunea edukiko du plazak eta 16 arbola eta 44 zuhaixka landatuko dituzte. Horregaz batera, 17 jarleku eta iturria ere egongo dira. Udalak ohiko plaza izateaz gain, bestelako ekintzetarako topaleku izatea gura du, berbarako Erromoko jaietako bilgune. Horren albotik, 2 pergola jarriko dituzte Ezekiel Agirre eta Aurrezki Kutxa kaleetako alde banatan. Bestalde, Santa Eugeniako eskola ohiak barrutik zein kanpotik eraberritzeko asmoa ere badauka Udalak, baina egiteko horrek gutxienez datorren urteko aurrenkontuei itxaron beharko die. m

20 ZENTIMO BALIOKO DU EREAGAKO IGOGAILUAREN BIDAIA BAKOITZAK

Ereagako hondartza eta Maria Kristina parkea (Algorta) lotuko dituen igogailuaren bidaia bakoitzak 20 zentimoko prezioa edukiko du. Hala ere, udal arduradunek 10 bidaiarako txartel merkeagoa eskaintzeko asmoa daukate eta, ziurrenik, “creditrans” txartelak ere erabili ahal izango dira. Udaberrian eta udan igogailuaren ordutegia 10:00-22:30 izango da, eta udazken eta neguan 10:30-20:00. Igogailua maiatzean martxan ipintzea espero dute eta bere kudeaketa, zaintza, garbiketa, diru-bilketa... ezintasunen bat daukaten lanbakeen ardurapean ipiniko duen enpresa baten esku utzi gura du Udalak. Guztira igogailuak 1,4 milioi euroko kostua eduki du.

“INFORMAJOVEN” SISTEMA INFORMATIKOA

Getxoko Udalak Murtziako Udalaren “*Informajoven*” sistema informatikoa erabiltzeko hitzarmena sinatu du. Sistema horrek, gazteentzako interesgarria den informazioa bildu, landu, zabaldu, gazteen arteko harremanak bultzatu, Gazte Informazio Bulegoagaz harremanetan ipini, gazte getxoiztarren proposamenak jaso, ekitaldien berri eman etab. egiteko aukera ematen du. Bestalde, “*gazte elkarteak eta 5 eta 30 urte bitartekoei zuzendutako ekintzak*” bultzatzeko asmoagaz, 26.500 euro bideratuko ditu Udalak. Laguntzok eskatzeko epea maiatzaren 9an amaitzen da.

ZUBILLETAKO BOE-N AUZIA

Zubilletan (Algorta) egingo diren sustapen publiko zein pribatuko 124 Babes Ofizialeko Etxebizitzaren tramiteak, proiektua, birzatiketa, xehetasunen azterketa, urbanizazio lanetarako diru-bilketa... egitea bere ardurapean hartu gura du Udalak. Bertako auzotar kaltetuen %80 asmo horregaz ados ez balego eurek egin beharko lituzkete tramite guztiak. BOE hauen eraikuntza lanak 2007an hasiko dira.

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45

ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINI-K A

- Odontologia oroko-na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behea eskuina

ALGORTA

94 94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03

ALGORTA

Emakumeen berba plazara

Getxoko Bilgune Feministak, herriko beste talde batzuen laguntzagaz batera, Emakumeen II. Mundu Martxaren nondik norakoak aurkezteko jaialdia antolatu du. Hitzordua apirilaren 22an ipini dute Txiki Otaegi plazan aratsaldeko 19:00etatik aurrera. Emakumeen kultur jarduna plazaratu eta zabaltzeko asmoagaz zine emanaldiak, dantza garai-kideko ikuskizuna, txalaparta doinuak, Sonia Gonzalez idazleagaz berbaldia... iragarri dituzte. Mundu Martxaren aurtengo leloa *“2005 arrazoi martxan jartzeko”* da; eta zu, lekukoa hartzeko prest? ^m

GAZTETXEKO ATEAK ZABAL-ZABALIK

Dagoeneko Itzubaltzeta/Erromoko gazteteak urte erdi daroa gazteen bilgune izaten. Auzolanaren bitartez gaztetea aurrera doala erakusteko Itzubaltzetakoek atek zabalik eguna egin zuten apirilaren 8an: aurreko gaztetearen hondarretatik berreskuratutako errotulua ipini, bi solaraituetako gelak erakutsi, bertso doinuakaz bisita gidatu, “luntx” gozoa eskaini, eta etorkizuneko asmoak azaldu zizkieten bertaratutakoei. Lanean jarraitu eta gazteen ekintzak aurrera eramateko gazteteke atek zabalik daude.

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Antonio Palomar > medikua

“Guztiz analfabetoak gara elikadura arloan”



Palomarren liburua 15 euroan dago salgai

***La despesa de Hipocrates. Los poderes curativos de los alimentos* bere lehenengo liburua plazaratu zuen pasadan urteko abenduan Antonio Palomarrek (Getxo, 1959) Txalaparta argitaletxeagaz. Medikua eta osasun-hezitketan zein elikaduran aditua da eta Bilboko Osasunerako Informazio eta Dokumentazio Sumendi Zentroko sortzailea eta bultzaillea izan da.**

—*“Zure elikagaia zuretzako sendagai izan dadila eta zure sendagaia izan dadila zure elikagaia”*, Hipocratesek orain 2.400 urte botatako esaldia da, zer adierazi gura duzu?

—Liburuaren izenburua azaltzeko erabili dut eta bestalde, sendabelarrek osagai aktiboak dauzkaten legez, eligaiek ere badauzkatela adierazteko. Beharrezko ditugun oinarritzko bitamina eta mineralez gain, elikagaiek beste osagarri batzuk ere badauzketela alegia. Hau da, elikagaiek gaixotasunei aurre hartzeko edota, eritasunaren arabera, sendatzeko osagarriak badauzkatela.

—Publizitateak elikadura arloan ezjakina den biztanleria erasotzen duela diozu.

—Azken 30 urteotan elikadura arloan ikerketa eta aurkikuntza handiak egin dira, horregatik gaur egun gomendatu daitekeen zerbait orain dela 30 txartzat geneukan. Adibidez, koipe desberdinak daudela bada-kigu orain eta horietako batzuk onak dire-

“Gure aitite-amamen ohiturak berreskuratu beharko genituzke”

la. Koipe onak eta txarrak zein elikagaietan dauden desberdintzeko gai izan beharko genuke, baina ez gara: elikadura arloan analfabetoak gara. Gero, publikatateak bere interesen arabera erasotzen gaitu, eta ezjakinak garenez dena sinisten dugu: Omega3 daukan esnea hartu behar dugu, kolesterola jaisteko Benecol... eta betiko eguneroko elikagaiek osagai horiek eta gehiago dauzkate. Erdixkako egiak dira publikizatearenak, ez dute esaten merkatuko yogurt natural normalenak eta merkeenak ere, edo esneak berak, defentsak handitzen dituela. —Zein da zure aholkua?

—Elikaduraren oinarriak ezagutzea da nire aholkua, gure gorputzak zer behar duen eta zer daukan soberan jakitea. Onespen gehien daukaten elikadura piramideak dira: dieta mediterraneo, japoniarrena edota “ovolacto-vegetarianoa”. 2. platerretik lehenengotik baino gehiago jatera ohitu gara, eta bigarren animalia-koipeak-eta ugariagoak dira. Gure aitete-amamen ohiturak berreskuratu beharko genituzke: barazki gehiago jan. Eta ezin ahaztu, elikadura on baten lagungarri ezinbestekoa ariketa edo kirola dela.

—Euskaldunok “ondo jaten” dugula mito bat ahal da?

—Gastronomikoki ondo jaten dugu, baina zapore oneko dena ez da beti osasuntsua. Badira zapore oneko janari tradizionalak osasuntsuak direnak: babarrunak, porrusalda, makailoa Bizkaiko erara edo patata tortilla. Baina beste batzuk ez: txorizoa edo urdaia. ^m

Hiru dantzari getxoztarren lanak IX. Koreografia Erakustaldian dantza garaikidearen adierazpide berritzaileenak ikusteko aukera dago



Eider eta Iragartze Barakaldo Antzokian eskaini zuten emanaldia baino lehen

Eusko Jaurilaritzak orain dela 9 urte sortu zuen Koreografia Erakustaldiaren helburua da euskal dantza garaikidea bultzatzea eta koreografo gazteei sormenerako aukera ematea. Erakustaldian parte hartzeko iaz dirulaguntza jaso zuten 11 lanetatik bostek gainditu dute aurtengalaba, eta horietatik 3 dantzari getxoztarrek sortutakoak dira: Iragartze Garairen *“Duty Free”*, Eider Rodriguezen *“Huri”*, eta Izaskun Santamariagaz batera Natalia Mongek egindako *“Cuatro y cuarto”* (dantza ikuskizun hori atzeratu egin da Nataliaren amatasuna dela-eta). Halaber, Erakustaldirako hautagaien artean baziren beste getxoztar batzuk ere: Isabel Naveranen *“La alfombra roja”*, Sarai Gonzalezen *“Luna Nueva”*, Marian Gerrikabeitiaren *“3 loopings of solitude”* eta Jene Kortazarren *“En boca de Pandora”*.

Duty Free eta *Huri*
Duty Free lana horrela laburbildu du Iragartzek: *“teknologia eta globalizazioaren eszenaratzea da: eguneroko soinuek, zanatek, (alarma, telefono-ak...) gure emozioak gidatzen dituzte, horri lotuta dago lana; 5 dantzarik (gehienak Getxokoak) taularatzen dugu, musika estiloa elektronikoa eta nabasketak dituen da, dantza estiloa jazz eta garaikidea”*. Ostera, Eiderren *“Huri”* sorkuntza pertsonalagoa da, *“ez dauka mezu zuzenik, mugimendugaz esperimentatu nahi nuen, barruan daro-adana atena, ez ikasi dudana; musikari jarraiki istorio zirkularra da. “Huri” arabieraz izaki paradisiakoa da, barrukoa ateratzeko inspiratu ninduen horrek; musika Anour Brahemena da: klasikoa, arabiar ikutuakaz”*. Ikuskizun horiek eta Nataliarena eskualdean noiz ikusi zain gaude. ^m

GONZALO IRIBARNEGARAYK BERE LEHENENGO NOBELA PLAZARATU BERRI DU

Gonzalo Iribarnegarayk (Getxo, 1972) *“Tiempos turbulentos”* nobela historikoa kaleratu berri du Status Ediciones argitaletxearen eskutik. Plazaratzen duen lehenengo nobela da baina ez idazten duen lehenengo liburua (*Un mes en Botswana*, 2002). Bidaiazale eta abenturazale amorratua izaki, abentura, borrokaldi, ankerkeria, basakeria... eta abarrez bete ditu Iribarnegarayk nobelaren 473 orrialdeak, baina maitasun istorioek, leialtasunak, pasioak... ere badaukate euren lekua, hala iragarri dute argitaratzaileek. XII. mendera garamatza getxoztarrak, Lehoi Bihotzun Rikardo erregearen denboretara, eta garaiko Lurralde Santua zeritzonengan eta Ingalaterran lekutu du nobela.

PIO LINDEGAARDEN OMENEZKO KONTZERTUA APIRILAREN 23AN

Getxoko Jazzaldiak urtero Pio Lindegardi gorazarre egiteko antolatzen duen jazz kontzertua apirilaren 23an egingo da, 20:00etan Andres Isasi Musika Eskolan (Sarrerak: 8,5 euro). Lindegard, Zornotzako dani-markarra jazzaren zale eta bultzatzaile porrokatua izan zen eta Getxoko Jazzaldiko laguntzaile eta sustatzaile kantsaezina. Bere omenezko aurtengo kontzertua Joachim Kühn pianojole alemaniarren eta bere taldearen esku joango da.

“MATANDO HORAS” ANTZERKI LANA APIRILAREN 30EAN

Hezgaitz antzerki talde getxoztarrak *Matando Horas* lana eskainiko du Getxo Antzokian. Emanaldia hileko azken egunerako iragarri dute eta arratsaldeko 20:00etan ipini dute hitzordua. Sarrerak hiru euro balio du eta dagoeneko gura duenak ohiko lekuetan eskura ditzake.

cianoplan

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarketak •



Beatriz Resa > Sexu Berdintasunaren Aldeko Planaren arduraduna

“Talde eta pertsona guztien artean lortutako adostasuna azpimarratuko nuke”

—Zeintzuk izan dira Plana aurrera ateratzeko urratsak?

—Lehen urratsak aurreko legegintzaldian eman ziren. Orduan, egoeraren diagnosia egiteko enpresa bati azterketa agindu zitzaion. Emaitezkin eta herriko hainbat elkarte eta udaleko teknikariekin batera jorratu beharreko aspektuak zehaztu ziren. Aurrekontu arazoengatik prozesua legegintzaldi honetarako atzeratu zen. Ni heldu nintzenean, legegintzaldi honetan, talde politikoen adostasuna lortzea eta zuzenketak egitea izan zen nire helburua. Hau lortuta otsailaren 23ko plenoan onartu zen.

—Nori zuzendutako plana da bereziki?

—Jende guztiari, bai gizona bai emakumei. Plana bi zatitan banatuta dago. Alde batetik, udaletxean bertan hartu beharreko neurriei begira; bestetik, gizarteari eta herritarrei begira.

—Planaren zein aspektu azpimarratuko zenuke?

—Lehenik eta behin talde eta pertsona guztien artean lortutako adostasuna. Gero, planaren edukiari dagokionez, gauza guztiak dira garrantzitsuak, baina zerbait aipatzearren... osasun arloan bulimia, anorexia eta HIESaren aurkako kanpainak, tratatu txarrak jasandako emakumeak laguntzeko neurriak, hezkuntzan *Coeduca Saria* hezkidetzaren proiektuak saritzeko,



Argazkian, Beatriz Resa

kiroletan neskek dituzten taldeen dirulaguntza handitzea...

—Alor askotan ekiteko plana... bitartekoak ere ugarituko dira?

—Printzipioz aurrekontuetan 17.000 euroko kontu-saila daukagu. Ez da asko, baina kontuan hartu behar da Berdintasun Plana zeharkako egitasmoa dela, eta beraz, alor askotan lantzekoa, alor bakoitzeko aurrekontutik ere erabiliko da Plana aurrera ateratzeko. ^m

Neurri batzuk

- Hezkuntzan hezkidetzaren programak bultzatu (Coeduca Saria).
- Lan merkatuan emakumeen sarrera erraztu eta emakumeek sortutako enpresak sustatu.
- Biolentzia biktimak laguntzeko azpiegiturak sortu: etxebizitzak...
- Kiroletan emakumeen taldeak sustatu.
- Osasun arloan bulimia, anorexia eta HIESaren aurkako kanpainak.

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Auzotarrok Kultur Elkartea

Herriko 175 familia biltzen ditu taldeak



Elkarteko batzordeko kideak

“Inguruko auzoetan kultura bultzatu, euskal kultura barne, adin guztietara hurbilduz”. Hori da Auzotarrok Kultur Elkartearen helburua. 2002an sortu zuten aurretik inguruan zebilen elkarte desagertu zenean. Elkarteko kide Igor Bilbaok azaldu digunez San Bartolome auzoko Kultur Aretoan daukate egoitza eta han elkartzen dira; hala ere, inguruko auzoetara begira lan egiten dute: Artatzagane, Peruri, Artaza, Sarriena, eta noski, San Bartolome.

Adin tarte guztiak kontuan hartuz antolatzen dituzte era guztietako ekitaldiak. Horrela, astero besteak beste jarduera finko bezala aerobic, areto dantzak, soinketa, yoga edo margogintza eskaintzen dute. Asteburuko irteerak, txangoak, lehiaketak (margogintza, gastronomia, ...), antzerkia, zinea, kontzertuak, udan txikienentzako ekintzak, etab. ere antolatzen dituzte.

Gaur egun, inguruko 175 familia dira elkarteko bazkide, urtean 10 euro ordaintzen dutenak. Hori bai, ekintzak jende guztiarentzat irekiak izaten dira.

Igor Bilbaok berak esan digunez, udaletxetik jasotako dirua izaten da jarduerak antolatzeko oinarria. “Gehienbat udaletxetik jasotakoarekin bizirauten dugu, gero bazkideen kuotatik, eta jardueraren arabera enpresetara jotzen dugu”.

Elkartea martxan jartzeko lehen urratsak izan ziren zailenak, orain, “lana ondo banatuta daukagu, lagun taldea osatuta eta dena mekanizatua daukagu”. Elkartearen batzordeko 8 kideetatik 7 gizonetzkoak izateaz kexu da Igor Bilbao: “emakume gehiago egotea gustatuko litzai-guke, baina ez dakigu zergatik ez dira hona etortzen animatzen”. ^m

ABENTURA ASTEBURUA
APIRILAREN AZKEN
ASTEBURUAN

Gazte Bulegoaren eskutik apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean kirol-abentura asteburua antolatu du Aterpek Burgos aldean. Frias herriko aterpean ostatu hartuta espeleologia, abentura ibilbidea eta kayaketan ibiltzeko aukera izango dute animatzen direnek. Prezioa: leioaztarrentzat 63 euro, besteentzat, berriz, 83. Prezioan etxea, bidaia, janaria, begiraleak, ekintzetarako beharrezko materiala eta aseguruia barne. Izena emateko Kultur Leioan (Gazte Bulegoan). Irteera: apirilak 30 goizeko 8:30ean. Itzulera: maiatzak 1 arratsaldeko 17:30etan. Informazio gehiagorako: 946072572 (Monica)



HOBEKUNTZAK
TXORIERRI AUZOAN

Leioako Udaletxeak Txorierri auzoan hobekuntzak egitera bideratutako beharrak esleitu ditu dagoeneko. Hain zuzen, auzorako sarrera -33 eta 39 atarien gunea- eraberrituko dute zola eta eskudelak aldatuz eta bidea erosoago izan dadin sarbideak moldatuz. Horrez gain, esleitutako beharren barne auzoko pasealekuaren berritzatzea dator. Hemen ere zola berritu eta eskudelak aldatuko dituzte. Lanak datorren maiatzean hasiko dira eta ekainaren azken partean bukatzea espero dute teknikariek.



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Luis Angel harategia

Euskal labela duen okela euskaraz salgai Tartangan

Aurtengo maiatzean 37 urte betetzen dira Luis Angel Bilbaok Tartanga kalean, institututik gertu, harategia ireki zuenetik. Artean 19 urte bete barik zituen. Gaur egun leku berean darrai euskal labela duen okela saltzen, Miren emaztea eta Koldo semearekin batera. Eta, esan digunez, bere harategia da Erandion labeldun okela saltzen duen bakarra.

“Nik hasieratik saldu dot bertoko okela. Lehen ganadua etxean hazten gendun, halanda ze geure baserriko okela saltzen gendun. Orain 17 urte ez daukagu ganadurik etxean, aitak eta amak urte asko daukie eta nik be astirik ez”. Luis Angelek beti saldu izan du etxeko edo inguruko baserrietan eta herrietan hazitako ganadua, eta labelaren kontua martxan jarri zutenean, horretan sartu zen buru belarri.

Astelehen arratsaldetan harategia itxi eta ganadua begiratzeraz joaten da semearekin batera. Batetik eta bestetik deitzen diote. “Aste honetan hiltzen dodaz behi bat Elorrioko eta txahala Laukizko”.

Behikia eta txahalkia ez ezik askotariko okelak ere saltzen dituzte, eta guztiak labeldunak: oilaskoak ‘Lumagorri’ markakoak, ‘basatxerri’ txerriak. Lehen txerriak Erandio Goikoako baserrian hiltzen bazituzten ere, aspalditik ezin dute etxean hildakorik saldu. Baina, halere, odolosteak egiten jarraitzen dute, harategitik



Argazkian, Luis Angel Bilbao eta Manu Herrero bere laguna

gertu egokitu duten beste lokal batean.

Eta labeldun okelak saltzeaz gain, Luis Angelen harategiak badauka beste berezitasun bat ere. “Gure artean euskaraz” dioen txartel gorri txiki bat daukate erakusleihan, euskaraz dakienari euskaraz egiteko gonbitea luzatuz. Euskara Zerbitzuak sustatutako kanpainarekin bat egin duten seinale.

Izan ere, zerbitzua euskaraz eskaini dezaketen establezimenduen artean adierazgarriak banatu ditu Udalak, Foru Aldundiak aspaldi hasi zuen kanpainaren ildotik eta Luis

Angelena da txarteltxo hori jarri duten herriko 17 establezimenduetako bat. Herrian badira zerbitzua euskaraz eskaini dezaketen denda eta establezimendu gehiago, baina oraingoz gutxi horiek baino ez dira izan adierazgarria jarri dutenak.

Luis Angelek dioenez, bere bezero gehien-gehienek erdaraz egiten dute, baina badira jende nagusi batzuk, alboko institutuko zenbait irakasle eta orain gazte gutxi batzuk ere euskaraz eskatzen dutenak, baina gutxienak. “Gure artean euskaraz” egiteko gonbitea luzatua dago. m

Lutxana ez da Erandio ala?

Lutxanakoak haserre Udalarekin



Lutxanako auzotarrak manifestazioan Udaletxerako bidean

Horixe izan zen joan den apirilaren 9an Lutxanako auzotarrek udal agintariei luzatutako kexa: auzoa guztiz baztertuta daukatela. Beren errebindikazioak azaldu dizkietela agintariei, haiekin bilerak egin dituztela, baina arazoei ez dietela konponbiderik jartzen. Horregatik, auzo elkartearen deiari erantzunez, Lutxanatik udaletxe aurreraino manifestazioa egin eta esku hartzeko deia luzatu zioten Udalari. Pinturas Internacional lantegia izan zeneko lokaletan hondakin toxikoak pilatzen direla, Enekuri eta Lutxana arteko hondakindegia ez dituela osasun eta segurtasun neurriak betetzen, oinezkoek bizia arriskutan jarri behar dutela Erandio Bekoarantz nahiz Bilborantz joateko, espaloirik ere ez daukatela eta daudenak egoera tamalgarrian daudela, Asua itsasadarren inguruko enpresek isurketa toxikoak egiten dituztela, hormigoizko hormez inguratutako bizpahiru orubetan era

guztietako animaliak batzen direla, ibilgailuetan lapurretak ugaritu egin direla, errepidean abiadura moteltzeko seinalerik ere ez dagoela eta beste hamaika arazo aipatu dizkigu Ainhua Moso, auzo elkarteko idazkariak. Lutxanak, gaur egun, 360 bizilagun inguru dauzka. m



Euskarazko

eskaintza lehen aldiz Lanbide Heziketako Institutuan

Datorren ikasturterako matrikula egiteko garaia dugun honetan berri pozgarria iritsi zaigu, hau da, Ategorri Tartanga institutuan lanbide heziketako hiru modulu eskainiko dituztela D ereduan: gizarte integrazioa, soinua eta instalazio elektroteknikoak. Orain arte Erandion ez da izan euskarazko eskaintzarik lanbide heziketan eta aurtun zabalduko dute lehen aldiz aukera hori. Ikasleen esku dago aukera hori errealitate bilakatzea.

Horregatik, Euskara Zerbitzuak gutun eta liburuxka bana bidali die derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzeaz daukaten gazteei “Zeurea Da aukera, jarraitu euskaraz” esanez. Guztira, 15 urteko 180 bat neska-mutilek jasoko dute kanpainaren berri, zuzenean. Gutuna Luis Prieto Athletic-eko jokalaria sinatu du, Lanbide Heziketa euskaraz ikasi zuela eta gazteentzat erreferente ona izan daitekeelakoan aukeratu ere. Bizkaiko herrialdean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa euskarazko ereduetan non egin daitekeen eta leku bakoitzean zer eskaintzen duten azaltzen da gutunarekin batera banatutako liburuxkan. m

Ategorri institutua



Torrere 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

ERANDIOKO 2. FILM LABURREN ZINEMALDIA

Maiatzaren 9tik 14ra erakutsiko dituzte Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean Erandioko Bigarren Film Laburren Zinemaldian lehiaketara aurkeztutako lanak, dokumentalak nahiz umorezkoak. 2004ko urtariletik aurrera egindako pelikulak aurkeztu ahal izan dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta apirilaren 14ko ekitaldian banatuko dituzte Udaleko Kultura, Gazteria eta Kirol Arloak Lanbide Heziketako Institutuaren lankidetzaz antolatutako zinemaldiko sariak.

ERAKUSGELA BERRIA
LASTER ZABALDUKO DA

Maiatzaren 3an zabalduko ditu ateak erakusgela berriak. Udaletxeko beheko solairuak, lehen udaltzaingoan aldagela zenak (50 metro koadro), gai eta mota desberdineko erakusketak hartuko ditu datorren hiletik aurrera. Lehenengo erakustaldia maiatzaren 3-14 bitartean egongo da ikusgai eta txotxongiloen gainekoa izango da. Horren albotik, txotxongiloen munduan ezaguna den Corrado Massaci gonbidatu dute, eta goizez bisita gidatuak antolatuko dituzte. Astelehenetik barikura 10:00-13:00 eta 18:00-21:00 egongo da zabalik erakusgela berria; zapatuetan goizez ordutegi berean, baina arratsaldez 16:00-19:00 bitartean. Hurrengo erakusketa Sopelanako argazki zaharren ingurukoa izango da.

Udaletxean egongo da areto berria



IMITAZIOZKO BITXIEN ETA
APAINGARRIEN EGUNA

Artisautza azoka maiatzaren 7an izango da eta bosgarren urtemuga honetarako aukeratu duten gaia “Imitaziozko bitxiak eta osagarriak edo apaingarriak” da. Larrabasterako Urgitxieta plazan jarriko da azoka eta goizez eta arratsaldez egongo dira zabalik artisauen salmahaiak, hurrengo ordutegian: 11:00-15:00 eta 17:00-20:30. Sopelanako Udaleko Kultura sailak antolatzen duen azokara bertaratzeko denak 50 bat artisauen bitxi eta osagarriak ikusteko eta erosteko aukera edukiko du.

Kiroldegi berriaren egitasmoa
2006ko aurrekontuetan sartu gura du Udalak



Abadesoloko kiroldegia

Abadesoloko kiroldegiaren aurre aldean kirol instalakuntza berri bat egiteko asmoa dauka Sopelanako Udalak. Aurreproiektua martxan da, egitasmoa 2006ko aurrekontuetan sartu nahi dute udal arduradunek eta 2007an legealdia amaitu baino lehen kiroldegi berria ireki. Solairu bakarreko instalakuntza litza-teke, eta bertan herriko taldeek euren ekin-tzak gauzatzeko hainbestetan aldarrikatuta-ko gunea edukiko lukete, esaterako, tai chi ikastaroak emateko. Komunikazio, Infor-mazio, eta Turismo zinegotzi Ricardo Iba-rrak onartu legez, “*momentu honetan kirol instalakuntzen arloan eskaria eskaintza bai-no handiagoa da eta hori konpontzeko hel-*

buruagaz jaioko da kiroldegi berria”. Ibar-rak gaineratu modura, “*urte bi daroetz beste kiroldegiak, eta enabiltzaileen aldetik aurrei-kuspen baikorrenak ere gainditu ditu*”. Bestalde, Urkoko instalakuntzak handi-tu eta ekipamendu gehiago eskainiko di-tuztela azaldu du Ibarrrak, eta inguruotan atletismo pista jartzeko asmoa ere bada-goela. Hala ere, horren ardura udalerri-ko kirol instalakuntzak kudeatzen dituen Serviocioren enpresarena da. Alabaina, egitasmo hori ez da gauzatuko Uribe Kostako korredoreko lanak amaitu arte. Azkenik, Serviociok hurrengo hamar urtee-tan kudeatuko ditu Abadesolo eta Urko kiroldegiak eta udal pilotalekua. m

Aloña Aranaga > diseinugilea

“Sara Furs erakunde ezagunaren Zentroan larua lantzen ikasteko aukera eduki dut”



Artisautza azokan salmahai bat ipiniko du. Bere diseinuak AH Virtual (Bilbo) dendan eros daitezke

Aloña Aranaga bere gaztetasunean moda munduan ibilia dela esan daiteke, berak “hasten dabilela” badio ere. 27 urte dauzka sopoloztarrak eta Arte Ederrak ikasi zituen. Ikasketen azken urtea Belgikan egin zuen Erasmus bekari esker, gero Modako Diseinua ikasi zuen Madrilen, eta gaur egun hantxe bizi da. Danimarkan ere egon da ikasten eta bizipen interesgarria izan zen berarentzat hangoa: “*larua lantzen eta margozten ikasi nuen han. Eskandinavian bisoi eta azeri haztegi handiak daude, eurek Sara Furs erakunde ezagunagaz batena egiten dute lan eta erakunde horrek Nazioarteko Diseinu Zentroa zabaldu zuen Copenhaguen. Zentro horretako programak disenatzaile ezagun zein ezezagunei bertan ikasteko aukera eskaintzen die eta horretarako beka bat lortu nuen: teknologia berriei esker larrua lantzeko aukerak ikasi nituen han*”. Aranagaren esanetan “pasarela” handietan ikusten diren larruak handik ekarritakoak dira, “*berbarako, batzuetan zera esaten dute: Jean-Paul Gaultier*

by Sara Furs of Escandinavia. Ni oso pozik egon nintzen han eta gero eurek han edukitzeko diseinu batzuk eskatu zizkidaten”. Loewe eta Cortefielegaz lan-elkarrizketak eduki ditu, eta azkonekoi zapi batzuk saldu zizkien, “*ez didate berriro deitu, baina diru piloategaz bueltatu nintzen etxera*”. Horrez gain, iaz Getxo Modako 20 aukeratuen artean egon zen.

Estilo berezia eta koloretsua
Zapiakaz hasi zuen disenaitzaile ibilbidea, orain arropa diseinatu, josi, apaindu, margoztu... eta kristalezko arrakadak, zintzilikarioak, paparreko orratzak etab. egiten ditu. Bere estiloa honela azaltzen du: “*estilo oso berezia da neurea, kolore askorekin, eta diseinu bakoitza bakarra da*”. Seta, kotoia, larrua eta kristalagaz egiten du lan eta ez du aurreko zirriborrorik egiten: “*zelan hasiko dudan badakit baina zelan amaitu ez*”. Euskaldunak “*ondo janzen*” garela uste du, “*Madrilen baino hobeto, hemen, oro har, klasea daukagu*”. m

LALIAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

nuri haitz
jan eta edan

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

TXIRRINDULARI LASTERKETA MAIATZAREN 8AN

Berangoko Txirrindulari elkarteak Eskolarteko Txirrindulari lasterketa antolatu du maiatzaren 8rako. 8 eta 14 urte bitarteko txirrindulariek jardungo dute eta Bizkaia mailako lehiaketa da. Irteera Moreaga parketik egingo da goizeko 10:30ean, eta km bateko zirkuitu itxiari adinaren arabera dagozkion itzuliak egin beharko dizkiote neska-mutilek (txikienek 3 itzuli, lehen urteko kimuek 6... eta haur mailako nagusienek 18 buelta). 300 txirrindularik baino gehiagok parte hartzea espero dute antolatzaileek eta 30 txirrindulari eskola inguru egongo dira.



IBILALDI NEURTUA APIRILAREN 24AN

Urtero legez, Ibilaldi Neurtua antolatu dute Simon Otxandi dantza taldekoek. Ibilaldiaren XXIV. edizioa da aurtengoa eta apirilaren 24an, domeka, ipini dute hitzordua. Irteera Elexaldetik egingo da goizeko 10:00etan eta nagusientzako prestatu duten ibilbideak 14 km dauzka; umeentzakoak, oster, 8 km inguru. Ibilaldiaren erdibidean atsedenaldia egiteko parada egongo da eta han indarrak berreskuratzeko salda, saiheskia... emango dituzte. Amaitzeko, bapo bazkalduko dute herri bazkarian izena eman dutenek.

Euskal pastelaren txapelketa eta azoka maiatzaren lehenean



Iñaki Gonzalez eta Jon Celaya, azokako antolatzaileak

Nekazaritza eta eskulangintza azoka hartuko dute Elexaldeko landek maiatza estreinatuko dugun egunean bertan. Hamar urte baino gehiago dira Berangoko Simon Otxandategi dantza taldeak azoka antolatzen duela eta aurten ere ia 70 baserritarrek eta artisauk hartuko dute parte. Sasoiko produktu freskoak, ezta, pate, arrautza ekologikoak, lorak, ogia, gaztaia, txokolatea, fosilak, egurrez egindako apaingarri eta tresnak... denetarik edukiko dute ikusgai eta salgai bertaratzin direnek.

Gure eskualdeko artisau eta baserritarrak ere bertan gongo dira, denetara 20 bat erakusleku eurek betekiko dituzte; eta horietatik 8 bat berangoztarrak izango dira.

Esan barik doa, zazpigarren urtez jarrian, egun horretan bertan egingo dela Euskadiko VII. Euskal Pastelaren Txapelketa entzutetsua. Aurtengo epaimahaia hurrengoek osatuko dute: Berangoko Ogikiñe dendako gozogleek, elikaduran aditu eta mediku Jesus Llona Larraurik, BBK eta MetroBilbaoko ordezkariak, Miren Dobaran alkateak, eta Oka harategiko Fernando Quaresmak.

Goizeko 9:00etan zabalduko da azoka, eta Metro Bilbaoren laguntzari esker, Berangoko Hiperreko aparkalekua eta azoka tren txu-txu batek lotuko ditu. Beraz, aparkaleku arazorik ez du edukiko maiatazaren 1ean azokara hurreratu gura duenak. m

J. Aitor Gonzalez > historia zaletua

“Liburuan azaltzen dudanez, nire ustez harresiak 6 ate zeuzkan: 2-3 ziur, eta besteak balizkoak”



Gonzalez Santiagoko Atearen alboan. Liburua Urretxindorra liburudendan lor daiteke (10 euro)

Murallas de la Villa de Plentzia liburua kaleratu berri du Aitor Gonzalez Gatok (Portugalete, 1973). Gonzalezen ogibidea eta zaletasuna, “obsesioa”, harriek lotzen dute: igeltseroa da eta aspaldiko harresi, gaztelu eta dorreen inguruan plazaratzen duen laugarren liburua da hau (bosgarrena bidean dauka: *Bermeoko harresia*). Ikasketaz historialaria ez bada ere, bere liburu denak dokumentu historikoetan eta ikerketetan oinarrituta daude. Plentziako harresiaren kasuan, iturriak hurrengoak izan dira: Bizkaiko Probintzia Artxibo Historikoa, Bizkaiko Foru Artxiboa, Hiri-Jabetzako Erregistroa, hala-moduz Plentziako Udal Artxiboa (itxita dago, Gonzalezek ezin izan du bertako lanik ia aztertu), eta Labayru eta Iturizaren idazlanak. 2001ean hasi zen Plentziako harresiaren gainean ikertzen eta idazten, baina argitaratzea berandutu egin da Udal Artxiboa zabaltzeko zain egon delako Portugaletekoa: “ziur bertan badagoela bestelako

dokumenturik baina...”.

Harresiak 6 ate eduki zitzakeen

Gaur egungo alde zaharra inguratu zuen harresiak Gonzalezen iritziz: “2,5 hektareako esparrua, liburuan planoa badago”. Uriudala eratu zenean eraiki ei zen: “1212-1236 artean, eta herriaren zabalkundea zela-eta XVIII. mendean eraisten hasi ziren, XIX. menderako erorita zegoen; zutik darraien Santiagoko Atea da bere arrasto bakarra”. Herria babesteko egin ohi ziren harresiak, eta bere esanetan 2 eraso gogor jasan zituen Plentziak: “1436 aldera Mujika (Mungia) leinuaren aldetik (Velasco eta Villela familiak lagunduta), eta beste bat 1487an. Bestalde, uri-udaleko leinu handiak Arteaga, Butroi, Kukullu eta Mujika izan ziren”. Gonzalezen ustez harresiak 6 ate zeuzkan: “2-3 ziur, besteak balizkoak: non egon zitezkeen liburuak azaltzen du”. Liburua Gonzalezek berak editatu eta finantziatu du: “idazteko eta kritikarako askatauna ematen dit horrek”. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



01 SOPELNET s.L.




Jokoak sarean •
Txapelketak • Internet •
Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknika
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94

 **Basurto**
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

LITERARTUR LEHIAKETA
ANTOLATU DU ARLDI
EMAKUMEEN ELKARTEAK

Plentziako Araldi Emakumeen Kultur Elkarateak 9. urtez antolatzen duen Kontaketa Laburren Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Plentzia, Gorniz, Lemoiz, Urduliz, Barrika eta Sopelanako 16 urte baino gehiagoko lagunek parte har dezakete eta lanak aurkezteko epea maiatzaren 15ean amaituko da. Kontakizunak euskaraz edo gazteleraz idatzitakoak izan daitezke eta gehienez 10 orrialde eduki ditzakete. Lehiaketako oinarriak Gofi Portalen har daitezke, baina lanak Araldi elkarteren egoitzan (Kristo enparantza) aurkeztu beharko dira. Hala ere, informazio gehiago behar izanez gero martitzenetan (17:00-20:30) Araldi elkartera dei dezakezue.

Harremanetarako: 94 677 50 31

“LUR BARRIAK” LEHIAKETA
MARTXAN DAGO

Uribe Kostako Behargintzak (beste eskualdeetako Behargintza batzukaz batera) *Lur Barriak* sariketa antolatu du 3. urtez jarraian. Lehiaketaren helburua hurrengoa da: Behargintza antolatzaileen eremuko udalerrietako biztanleek sustatutako enpresa berrien sorrera eta dagoeneko eremuko udalerrietan kokatutako enpresak saritzea; bide batez, lan munduan sartzeko modu berrien alde egitea. Lehiaketan parte hartu gura duten enpresarioek edo enpresa berriek ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa.

Informazio gehiago: www.urkobe.net

GORLIZ

65 argazki eta 17 diapositiba egon dira lehiari



Sari banaketan egon zen giroa

Gorlizko Udalak antolatzen duen XIII. Argazki eta Diapositiba Lehiaketara 65 argazki eta 17 diapositiba aurkeztu dira. Lau argazki onenen artean (3 sari nagusi eta turismoa sustatzeko sari berezia) 900 euro banatu dituzte eta diapositiba onenei 200 euroko saria eman diete.

Argazkiei dagokienez, horrela geratu da sailkapena: argazkirik onena (300 euro) Juan Pedro Fernandez Ferreras berangoztarrarena izan da, bigarren argazkirik onenaren saria

(250 euro) Basauriko Isabel Diez San Vi-centek eskuratu du, eta hirugarren saria (200 euro) Vicente Contreras Usategik (Amurrio). Azkenik, turismoa sustatzeko sari berezia (250 euro) Asier Castro de la Fuente bilbotarrak lortu du.

Bestalde, diapositiben alorrean 200 eu-roko sari nagusia eta lehiaketara aurkeztuta-ko 17 lanetatik onenak, epaimahaiko adi-tuen ustez, Joel Irastorza gorlizatarrarenak izan dira. m

Api.26 - Mai.8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

- ▶ **Antzezaleak taldeko kideen lanak.** Algortako kultur etxea. Apirilaren 30era arte.
- ▶ **Batxilergo institutuko lanak.** Erromoko kultur etxea. Apirilaren 29ra arte.
- ▶ **Getxoko argazki zaharrak.** Liburu Azokako ekitaldien barruan. Geltoki plaza (Algorta). Apirilak 22-24.
- ▶ **Arteskolako lanak.** Algortako kultur etxea. Maiatzak 2-14.

PLENTZIA

- ▶ **Margo Lehiaketako lanak.** Erakusketa gela. Maiatzak 3-8.
- ▶ **Jose Ignacio Olabarrieta eta Jon de la Huertaren margoak eta argazkiak.** Erakusketa gela. Apirilaren 29ra arte.

GORLIZ

- ▶ **Argazki eta Diapositiba lehiaketako lanak.** Erakusgela. Apirilaren 22ra arte.

ERANDIO

- ▶ **Belatik lurrunera. Ontzi modelismoa.** Josu Murueta kultur elkartea. Apirilaren 26ra arte.

LEIOA

- ▶ **Mamen Arrutiren margoak.** Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Apirilaren 29ra arte.

ZINEMA

GETXO

- ▶ **Sobre el Arco Iris.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Apirilak 27, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.
- ▶ **La casa de los 1.000 cadaveres.** Cinema Paradiso. Azpitiitludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Apirilak 29, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

- ▶ **Jorge eta Dragoia.** Haur zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Maiatzak 1, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.
- ▶ **Ray.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Apirilak 30, 19:00 eta 22:00. Maiatzak 1 eta 2. 20:00. Sarrera: 4 euro.
- ▶ **Shrek 2.** Haur Zinea. Kultur Leioa. maiatzak 1 eta 2. 17:30.
- ▶ **Little voice.** Perseo zineforuma. Zine ingelesari eskainitako zikloaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 3, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
- ▶ **Hotel Ruwanda.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Maiatzak 7, 19:00 eta

- zineforuma. Kultur Leioa. Apirilak 26, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
- ▶ **Contra la pared.** Cinema Paradiso. Azpitiitludun jatorrizko bertsioan. *Por... Derecho* film laburra ere eskainiko dute. Getxo Antzokia. Maiatzak 6, barikua. 22:00.

- LEIOA**
- ▶ **Contra la pared.** Perseo



▶ Kontzertua

Oskorriren *The Pub Ibiltaria* ikuskizuna

Oskorri taldeak *The Pub Ibiltaria* musika ikuskizuna eskainiko du gure eskualdean: Sopelanan Urko kiroldegian (maiatzak 7, 21:30) eta Getxo Antzokian (maiatzak 8, 19:00). Beste hamaika kanten artean, Santo Tomas egunean Bilboko Areatzan bildutakoakaz batera zuzenean grabatutako *The Pub Ibiltaria* 9 diskoko kantuak entzuteko eta abesteko aukera izango dute Sopelanara edo Getxora hurbiltzen direnek. Oskorrik musika tradizionalan oinarritutako kantuak egiten ditu baina gaurkotasunezko eta soinu berrien erritmoagaz. 30 urtetik gorako ibilbidean euskal kantu tradizionalak berreskuratzearen alde lan itzela egin du Natxo de Felipe buru daukan taldeak.

- **Non:** Sopelanan eta Getxon • **Noiz:** Maiatzak 7-8

22:00. Maiatzak 8 eta 9, 20:00.

- ▶ **Doraemon gladiadorea.** Haur Zinea euskaraz. Kultur Leioa. maiatzak 8. 12:00 eta 17:00.

PLENTZIA

- ▶ **Hasta donde los pies me lleven.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Apirilak 29, barikua. 22:00.
- ▶ **Los 3 mosqueteros** Haur zinea. Erakusgela. Maiatzak 7, zapatua. 17:00.
- ▶ **Bridget Jones “Sobrevivire”.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Maiatzak 6, barikua. 22:00.

ANTZERKIA

GETXO

- ▶ **Matando horas.** Hezgaitz taldea. Getxo Antzokia. Apirilak 30, zapatua. 20:00. Sarrera: 12 euro.
- ▶ **Yo me bajo en la proxima ¿Y usted?.** Pedro Osinaga eta Angeles Gonzalbesegaz. Getxo Antzokia. Maiatzak 7, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

LEIOA

- ▶ **Agurtzane Ormaza ipuin kontalari erotikoa.** Aterpek antolatuta. Kultur Leioa. Maiatzak 12, eguena. 20:30. Sarrera:6 euro.
- ▶ **Umeen opera entzunaldia.** Galina Vishnevskaya Antzerki Eskolaren ikuskizuna. Kultur Leioa. Maiatzak 12, eguena. 20:30. Sarrera: 6 euro.

BESTEAK

SOPELANA

- ▶ **V. Artisautza azoka.** Bitxiak eta osagarriak. Urgitxieta plaza (Larrabastera). Maiatzak 7, zapatua.

BERANGO


- ▶ **Nekazaritza eta Eskulangintza azoka.** Elexalde. Maiatzak 1, domeka. 9:00-15:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S
2 8 NIVERS RI
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Lehengo kartelak

Gure eskualdeko herri gehienek sarreretan oraindik ere badiraute argazkiotan ikus ditzakezuen erako kartelak. Etxaurretan itsatsitako baldosak erdaratutako gure herrien izenak erakusten dituzte. Franco diktadore faxistak indarrez agindu zuen garaian ipinitakoak dira guztiak. Herri txiki honek sufritu zuen sasoi latz eta amaigabea gogora ekarri digute kartelok, sekulan ahaztu behar ez dugun iragan hurbil eta mingarri hori.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Saharar umeek “guraso” euskaldunak behar dituzte udako hilabete bietarako. Urtero bezala Polisarioen “Oporrak pakean” ekimena gauzatuko da aurton, eta Uribe Kostak ere hartu egingo du bere ume kopurua. Ez da hain erraza, ordea, hizkuntza eta ohitura arrotzak dakartzan ume txiki bat etxean hartzeko prest dagoenik topatzea. Bizipena ez da txarra, eta horren froga da egiten duten gehienek errepikatu egiten dutela gero, baina familia berriak ere behar dira, eta horiek lortzeko ahaleginean dabilta Uribe Kostan zeregin honetaz arduratzen diren elkarteak -hiru, momentuz- eta zenbait udaletxe ere bai.

Familia eske

Saharako umeen etorrera prestatzen

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Iñaki Calle**

Herririk herri

Uda honetan Saharako ume bat hartu gura baduzu, telefono hauetako batera deitu:

- Getxo: 658-75 13 59 (Atfal elkarte)
- Leioa: 656-73 56 87 (Fath elkarte)
- Erandio: 665-70 82 39 (Nisma elkarte)
- Sopelana, Gorliz: udaletxean

Barrikan, Lemoizen, Plentzian eta Urdulizen ez dago elkarterik, eta udaletxeek ere ez dute ezer antolatzen. Berangon udaletxea arduratzen da, baina aurtengo epea amaituta dago dagoeneko.



Saharako errefuxiatuak bizi diren kanpamentuetan -Argeliako Tinduf hiriaren inguruan- ez da giro udan. Egunez, tenperatura 50 gradutakoa ere izan daiteke. Orain urte batzuk, umeak infernu horretatik ateratzeko ekimena abiarazi zuen Polisario Saharako askapen taldeak. Euskal Herriko instituzio batzuek bat egin zuten horregaz -Bizkaiko Foru Aldundiak, esaterako- eta ume sahararrak ekartzen hasi ziren, euskal familiakaz hilabete biko egonaldiak egin zitzaizkien. Uribe Kostari ere egokitu zitzaion berea, eta hala, 1996an etorri ziren lehenengo umeak gure eskualdera.

Hasieran, ardura osoa udaletxeek eurenaganatu zuten. Gero, apurka-apurka, el-

«Familiek agiri bat sinatu behar dute umea adoptatuko ez dutela esanez»

karteak sortu ziren herri batzuetan. Gaur egun hiru dagoz Uribe Kostan -Erandion, Getxon eta Leioan-, eta laugarrena erditzen dabilta Sopelanan. Herri horietan, elkarteek hartzen dute lanaren zama, baina udaletxeek diruz laguntzen jarraitzen dute. Aldundia, berriz, hainbat kontuz arduratzen da, legeagaz zerikusia daukaten gaiez batez ere. “Zuk ume bat hartu eta zeure etxean sartzen duzu, baina ez dago harre-

man hori definitzen duen figura juridikorik”, azaldu digu Itxaso Fernandez Getxoko Atfal elkartearen kideak. “Beraz, akordioa Aldundiaren bidez gauzatzen da. Familiek hainbat agiri sinatu behar dute, ume hori adoptatuko ez dutela edo adoptatzen ahaleginduko ez direla hitz emonez, besteak beste. Aldundiak, gainera, aseguru bat ordaintzen du umeak familiaren osasunerregimenean egon daitezen hilabete horietan”.

Familiak behar dira

Hasieran, Saharako umeak hartzeko ekimenak nahikoa arrakasta polita lortu zuen. Ondoren, ohi denez, beheraldia etorri zen. Orain urte bi izan ziren momenturik



Argazkiotan, ume saharuiak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan

amamakaz, gainera beste bat ekartzeko”. Zalantza barik edonor uzkuartzeko moduko arrazoiak dira horiek, baina badagoz bestelakoak. Bat, bizitzaren arlo guztietan gero eta zabalduago dagoena: “Gero eta erosoagoak gara”. Ezjakintasuna ere aipatu digu Atfaleko kideak: “Nik uste nuen

«Erosotasuna eta ezjakintasuna, horra umerik ez hartzeko arrazoietak bi»

bazegoela, familia nahikoa eta horregatik ez dut deitu’, dioskue askok”. Ez ba. Uribe Kostako elkarteak familia eske dabilta, momentuz ez daukatelako nahikoa bete gura dituzten helburuak betetzeko. Guztira, 40 umetik gora ekarri gura dira eskualdera, Euskal Herrira etorri ohi diren 400etatik.

Saharako umeak etxean sartzea lan handia dela ez du inork ukatzen, baina alde onak ere badagoz, Itxaso Fernandezek gogorarazi duenez: “Familia gehienek -%80 inguru- errepikatu egiten dute. Are gehiago, oso harreman estuak sortzen dira hango familiakaz; jende asko joan da Saharara,

umeak hartu eta gero, hango gurasoak ezagutzera”. Ez da eskatzen baldintza berezirik umeak hartzeko. Izan ere, denetik egoten da familia hartzaileen artean. Komenigarria da ume txikiak egotea noski, baina tira. Hori barik ere moldatuko dira Saharako labetik ihesi datozenak. m

Sopelanan elkarte berria jaio da oraintsu

Ikasturte honetan, Batxilergoko bigarren mailan dabilta Sopelana Ander Deuna ikastolako ikasleek ikasbidaia “berezia” egin dute, ikastolak berak egindako proposamen bat aintzat hartuta. Ez Saloura, ez Amsterdamera, ez horrelakoetan ohikoak izaten diren lekuetara, Saharara baizik. Iazko abenduan egon ziren bertan astebetez, eta bidaia hura laster Sopelanan jaioko den elkarte berri baten hazia izan da. Izan

«Aurton izango da Saharako umeak Sopelana etortzen diren lehenengo aldia»

ere, ekimena ez da bidaia hutsean lotu; aurretik eta ondoren ere bai, Ander Deunako ikasleek hainbat elkartasun ekintza egin dituzte Saharako errefuxiatuen alde. Azkenean, horrek guztiak arauzko itxura hartu du, elkartearen sorreraz. Momentuz, aurton ume sahararrak lehenengo aldiz etorriko dira Sopelana. Udaletxearen ardurapean baina elkarte -ez dugu izena jakiterik eduki, hain da berria- tartean dabilela.



Muxua, haginkada?

Iker Elorriaga

Aixerrotako landetan urtero ospatzen den Paella Egunean hartu zuen irudi hau Iker Elorriaga argazkilari algortarrak orain dela hiru urte. Jai handia da Paella Eguna Getxon. Eta ganorazko edozein festatan gertatzen den moduan, lotsa bazterturik barru-barruko sentimenduak libreki kanporatzen ditugu parte-hartzaileok egun horietan. Argazki hau horren adibide argia da.



PAELLA EGUNA GETXON, 2002

[berbetan]

2005 hasi zenetik Berbetan atal honetan agertu diren guztiak bezala -kasualitate hutsa da, zin dagizuegu- Koldo Serra Uribe Kostatik kanpo jaio zen eta bizitzaren uneren batean Algortara etorri zen. Bere kasuan, hiru urtegar. Betidanik ikus-entzunezkoen munduan ibili da, marrazkilari nahiz zinemagile. Orain, eta hilabete batzuetan behintzat, bi horietatik bigarrena baino ez dela aldarrikatzen du; izan ere, eta hainbat film laburragaz arrakasta lortu ostean *-El tren de la brujagaz*, batez ere-, bere lehen luzea egiten dabil. Uztaila eta abuz-tuan filmatuko da, Gipuzkoa eta Nafarroako mendietan, eta besteak beste Aitana Sanchez-Gijonen parte hartzea edukiko du. Serra Madrilen bizi da orain bost urte, baina Algortara egindako bisitaldi labur bat aprobetxatuz egin diogu elkarrizketa mamitsu hau. Zinema munduaren erraietan barrena bidaiatxoa egin dugu, eta ez daukate beti gura bezain usain ona.

Koldo Serra

Argia, kamera... ekin!

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Arte Ederrak ikasten hasi zinenean, ar-gi zeneukan zinema egin gura zenuela? —Behintzat ahalegindu. UBI amaitu nuen eta garbi neukan Arte Ederrak ikasi gura nituela. Txikitatik marraztu dut, beti gustatu zait. Bestalde, karrera hasi orduko eginda neukan neure lehenengo film laburra. Ni skatearen gaineko bideoak egiten hasi nintzen, Arrigunagan. Eta harra sortu zitzaidan barruan. UBI amaitu eta Arte Ederrak hasi bitarteko udan film labur bat egin nuen, *Sick of you*, eta sari bat irabazi nuen. Arte Ederrak hasi eta honetan jar-dun gura izan nuen.

—Derrigorrezkoa da zinemagile bat film laburrak egiten hastea gero luzeak egin ahal izateko? Eta bestetik, laburrak egiten dituenak derrigorrez emon behar du gero luzeetara saltoa? —Film laburra generoa da berez, eta isto-rio batzuek laburrak egiteko baino ez dute balio. Eta bai, film luze bat egiteko derri-gorrezkoa da lehenago laburrak egitea.

Inork ez ditu 300 milioi arriskuan ipiniko sekula ezer filmatu ez duen nonork peli-kula bat egin dezan. Lanbide guztietan jazotzen da hala. Beraz bai, derrigorrezkoa da aurretik laburrak egitea. Baina hori ez da laburrak egitearen helburu bakarra. Batzuek gustuko dute laburrak egitea, eta bada arlo horretan erosoago dabilen oso jende ona. Izan ere, pelikula luze askoren pekatua gehiegi luzatutako laburra izatea

“Film luzeak egiten hasi baino lehenago derrigorrezkoa da laburrak egitea”

da. Laburra berez da generoa, eta gainera aukera emoten du luze batean egin ezin daitezkeen gauzak egiteko. —Laburrak badauka aterabide komer-tzialik? —Bat ere ez. Hori da laburren arazoa, ez direla ikusten. Jendeak ikus ditzan egiten dira, noski, baina... Bueno, lehenik eta behin ikasteko egiten dira, eta bigarrenik

ikus ditzaten. Baina aterabide komertzia-lak eskasak dira, telebistako saioak izan ezik. Lehen hiru ziren, eta orain bakarra baino ez. Badago zeozer telebista txikietan ere... Baina hori ere ez da oso komertziala; lekuetako telebistek ez dute ordaintzen, eta TVEk edo Canal Plusek minutuko ordaintzen dutenagaz ezin da ezta inberti-tutakoa berreskuratu ere. Inoiz lortu egi-ten da pelikula luze baten emonaldia

rean laburren bat sartzea, eta gero badagoz labur bildumak dauzkaten DVDak. Hori modan dago orain, eta emoten du funtzionatzen duela. Jendeak erosten dituela, alegia. —Hala ere, film labur jaialdiek badauka-te osperik... —Bai, milaka dagoz. —Bestetik, emoten du ezin dela labur





Afrika beltzean

Gonzalo Iribarnegaray bidaiari eta idazle getxoztarra Afrikatik etorri berri da. 4x4 batean bere neskalgunagaz (Cristina Hernandez) Gambia ibaiaren bazterrak goitik behera ibili ditu. Oihan tropikala eta paisaia ederrak daude han, baina horien bila baino pertsonen, afrikarren bila joan zen hara Gonzalo. Argazkiok ederto erakusten dute hori. Bestetik, nobela bat argitaratu du egunotan Iribarnegarayk: *Tiempos turbulentos* (Status ediciones). Orain buru belarri dabil aurkezpen lanetan eta Afrikako bidaia orain gainean daukan lan handi hori lasaitasunez hartzeko egin zuela adierazi digu.

Argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**



ARRASTIRIA GAMBIA IBAIAN



EGUNEROKO LANAK



GARRAIOAREN ADIBIDEA



RASTAFARIA ESTASIAN



GIZONA ETA TXIMINOA IBAIAN GORA



LASAITASUN AFRIKARRA



GOZOKIAK IZUGARRI ESTIMATZEN DITUZTE HAURREK



GIZON ZURIENGANAKO JAKIN-MINA OSO HANDIA DA



PERKUSIO AFRIKARRA



ERRITMO ERAKUSTALDIA



ZURI BAT DJEMBE-EN ARTEAN



GAUEKO DANTZAK

zineeskola

Oskar Fernandez

Kamerarekin idatzi

Zutabetxo honetan ikus-entzu-nezko hizkuntzak ikasleen garapen orokorrean duen garrantziaz hitz egin dugu inoiz. Eta zinemak irakaskuntzan duen garrantzia ere behin baino gehiagotan aipatu dugu. Zenbaki honetan lantzean behin ikasgeletan kamera boligrafoaren orde ez erabiltzea proposatu nahiko genuke. Gaur egungo ikasleek gehien irakurtzen dituzten testuak testu filmikoak dira, pelikulak alegia. Errealitate hau eskolako ekintzak edo aktibitateak antolatzen direnean kontuan hartu beharko litzateke. Ikasleen bizitzan desoreka dago eta hau nabarmena da euren ikus-entzunezko alfabetizazioan. Normaltasun osoz filmak irakurtzen dituzte gazteek, baina ez dute filmarik idazten edo ekoizten. Testu hauen barruko egitura idatzizko testuak dira: testuen hazia ideia bat edo gehiago dira. Gero argumentua etorriko da eta honen ondoren eleberria, gidoi literarioa edo entsegua sortuko dira. Beraz testu filmikoak lantzen ari garenean ulermen eta adierazpen gaitasunak ere, inolako zalantzarik gabe, lantzen ari gara. Gaur egun ikastetxeetan oso baliabide erabilgarriak daude testu hauek sortzeko: kamera digitalak eta ordenagailuak. Baliabide bi hauen bidez ikasleek film luzerik ez baina laburrak erraz egin ditzakete, film esperimentalak, dokumentalak, erreportajeak, iragarkiak... Bolalumak ezinbestekoak dira irakaskuntzan eta beste hainbat lekutan, baina mikrofonoek, audiokasetek, kamerek eta beste tresna batzuek, gaur egun, oinarritzko baliabide didaktikoak izan beharko lukete irakaskuntzan. Gure uimeek txikitatik euren burmuinak irudiz betetzen dituzte, irudien bidez haien ingurua eta errealitatea eza-gutzen dituzte. Beraz, haien sentimenduak, ezagupenak, nahiak eta adierazpen gogoa ikus-entzunezko lenguaiaren bidez bideratzea baliabidea baino gehiago oinarritzko behar bihurtu da. 4

Fragil aurkeztu du Bajo Ulloak

Oihal handian egon barik **zortzi urte** eman eta gero **film intimista** bategaz dator gasteiztarra

Juanma Bajo Ulloa (Gasteiz, 1967) zinema zuzendariak *Fragil* filma aurkeztu du orain dela pare bat aste. Azken zortzi urteotan “pantaila handitik” urrun egon da zinemagile arabarra, baina ez geldirik: antzerki, publizitate eta bideoklipen esparruetan jardun du. 1997an *Airbag* filma arrakastatsua (2.200.000 ikusle) estreinatu zuenetik orain arte ez du zinemarako lanik zuzendu; hala ere, lotura gutxi daude film dibertigarri eta zoro hura eta oraingo *Fragilen* artean. Bajo Ulloak berak zuzendu eta ekoitzi ere egin duen azken filmagaz hasierako garaietara itzuli da gasteiztarra, zinema egiteko modu pertsonal eta intimistara.

Bi urte luze joan dira *Fragil* prestatzen hasi zenetik: aktoreak ezezagunak izan behar zuten, grabatzeko lekuak naturalak (aurrezteko), eta talde osoa martxan jar-

«Urkiola, Urbasa eta Gasteizen egin dituzte grabazioak»

tzeko dirua bildu behar zuen. Izan ere, bere poltsikokoagaz ekoitzi du Bajo Ulloak filma, ekoizpen guztiz indpendientea da. Zinemagile gasteiztarraren azken lana Urkiola, Urbasa eta Gasteizen



Airbag filma zuzendu zuen Bajo Ulloak 1997an

grabatuta dago eta musika Bingen Mendizabalek eta Borja Ramosek beren beregi sortutakoa da.

Bajo Ulloaren esanetan, gaur egungo gizartea islatu gura du *Fragilek*: indarrean dauden estereotipoen baldintzapean bizi ez denari, edertasun kanonak betetzen ez dituenari... maitatua izateko eskubidea ukatu eta ateak zerratzen dizkion gizartea. Arabarraren estiloagaz eta amodioaren gaineko istorio gordin bategaz atsegin hartu gura duenak badaki nora jo. m

Ez galdu > “Contra la pared”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** maiatzak 6, barikua • **Ordua:** 22:00 • **Zinema** **Paradiso**



Ospe handia hartu duen film honek nazioarteko sari asko eskuratu ditu. Adibidez, Berlineko Nazioarteko Zinemaldian Urrezko Hartza lortu zuen, edo Fipresci erakundeak ematen duen sari garrantzitsua. Beste sari batzuk ere eduki ditu, esaterako Europako Zinemaren sariak. Bere gurasoak Turkiakoak izan arren Alemanian jaio zen Fatih Akin. Orain arte dokumental bat, film labur bi eta lau luze eginak ditu. Azken honekin (*Contra la pared*) arrakasta handia lortu du. Pelikula zuzendu ez ezik gidoia ere berak idatzi du; izan ere, Fatih Akinek filmak kontatzen duen antzeko gertakizunak bizi izan ditu. Filma drama sakon bat da. Maitasunaz, jelsiaz, aurrez adostutako ezkontzaz, emakumeen askatasunaz, arazo psikologikoetaz, tradizioaz... era erakargarrian hitz egiten digu.

R13 taldearen estreinakoa

Gorlizen sortutako taldeak izen bereko diskoa plazaratu du eta 10 abestik osatzen dute



R13ko taldekideak entsegu batean. Informazio gehiago: www.r13.cc

Sineskeria, superstizio, edo galbideratzeari gela bat paratu zioten 2003an: Room 13. Taldekide berriek gela hura atontzen lagundu zuten, eta ingelesezko letrak euskarazko berba bihurtu ziren, ordutik R13 izenagaz dira ezagunak. Gorlizko Zehatz elkartearen elkar eza-gutu zuten eta Leioa, Sopela, Plentzia eta Bilbokoak badira ere, *“Gorlizko taldea”* direla aldarrikatzen dute Onintza Elorriagak (abeslaria), Andoni Elorriagak (bateria eta ahotsa), Arkaitz Quilezek (gitarra) eta Osoitz Elkorobarrutiak (baxua). Lehenengo lan honek taldearen izen bera daroa eta 10 kantez osatzen dute. Halaber, grabatutako kantuek lehe-

nengo pausuak islatzen dituztela azaldu digu Andoni Elorriagak: *“beste disko bat sortzeko adina abesti dauzkagu, horiek ez daude diskoan, agian datorren urtean 2. diskoan edo entzun ahal izango dituzue, agian; edo maiatzaren 13an Malakateko jaietan (Getxo)”*. Sustraiak rockean badauzkate ere, euren estiloa azaltzea gatxa dela aitortu du Elorriagak: *“estiloen nahasketa da, iturri desberdinetatik edaten dugu”*. *“Taldeari lagundu”* gura dionak dauka salgai, 8 euroan. R13 diskoa eskualdeko hainbat tabernetan eta sosik ez daukanak internetetik ere jaitsi ditzake euren kantak. m

Harremanetarako: 645 708 517

diskoak

Hotel
Moby
EMI



Moby Dick liburuaren egilearen bilobak ez du esperimenturik egin: bere disko berri honek (seigarrena) dantzalekuak beteko ditu. Baina badakar zenbait berrikuntza; esaterako, Richard Melville Hall-ek (Moby-ren benetako izena) ia kantu guztietan abesten du, eta musika elektronikotik nabarmen urrundu da. Pop abestiak daukan disko dugu, ahapaldiak eta leloakaz.

Guero
Beck
Universal



Ezinezkoa da bere estiloa sailkatzea: etorkizuneko kantautorea, funk, pop... *Sea Change* (2002) disko triste samarraren ostean, Beck Hansen kaliforniarra askoz dantzagarriagoa itzuli zaigu; ulergaitza da, hala ere, hitzen iluntasuna. The Dust Brothers-ek ekoiztu dute 13 abestiz osatutako Guero (horrela esan ohi diete mexikarrek ile-horiei), eta White Stripes bikoteko Jack White-k parte hartu du.

Giltzak
Skunk
Gor



Badira zortzi urte Iparraldeko talde honek lehenengo urratsak eman zituela, eta etenbarik munduan barrena jotzen ibili ostean, gaur egun esan daiteke *ska-core* euskaldunaren punta-puntako taldea dela. Skunkoek seigarren disko hau dakartzate besapean (lehenengoa Gor diskoetxean). Kantu bizkorrak, dibertigarriak, freskoak eta dotoreak bildu dituzte. Berba batean esanda: indartsua.

metak >

udaberriko lorak



Metak diskoetxeak udaberri honetan bere soroan loratuko diren diskoen berri eman du: Ruper Ordorikaren *“Ez da posible”* (1990) disko entzutetsua

birmasterizatuta, Biok talde bizkaitarraren *Margo debekatuak* lehenengo diskoa, Xabi Strubellen (Dut) bakarko Zura egitasmoaren *Ilargi Handi, Zauri Zarae* lana, Lisabö ren itzulera izango den *Izkiriaturik aurkitu ditudan gurak* (Pil-pil sessions 05) diskoa, edo Kuraia taldearen *Piztu da piztia* edizio mugatuko biniloa (gero CDan ere eskuragai egongo da). Disko horietako batzuk dagoeneko kalean daude eta beste batzuk laster egongo dira. Kolore ezberdinetako loreek margoztuko dute, beraz, Metaken ortua udaberrian.

ikastaroak >

euskal tresnak

“Euskal musika ezagutuz” egitasmoa ipiniko du martxan Plentziako Goñi Portal kultur etxeak. Egitasmoaren barruan txalaparta, trikitixa eta pandero ikastaroak emango dira ekaina eta uztaillean zehar. Izena emateko epea apirilaren 29ra arte egongo da zabalik, baina parte hartzeko lekuak mugatuak dira. Txalaparta ikastaroa astelehenetan emango da, trikitixa eguaztenetan eta panderoa eguenetan. Ikastarook 19:30etik 21:00etara izango dira eta prezioa 12 eurokoa da. Hala ere, zure ordutegiagaz ondo ez badator Goñi Portalera hurbil zaitezke zure eskaera azaltzeko.

Informazio gehiago: 94 677 55 41



hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

dirulaguntzak

lagundu nahi baduzu
hauxe da gure kontua

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

[liburuak]

Periferiak hiriko bilgune

Bilbon eta Donostian (Artelekun) lekutuko dira ekitaldiak **apirilaren 22tik aurrera**


Periferiak egitasmoak hiru urte daroaz dagoeneko kultur eragile kolektibo gisa. Lehenengo urtean (Livorno, Italia, 2003) filosofia eta kulturako diziplina guztiak biltzeko asmoa daukan egitasmoaren barruan literaturak berezko garrantzia eduki zuen; bigarrenean (Bilbo, 2004) dantzak eta antzerkiak hartu zuten leku handiagoa; eta oraingo honetan zineak gidatuko du nolabait egitaraua.

Bilbo eta Donostiako Arteleku aukeratu ditu aurten Periferiak kolektiboak ekitaldi nagusiak egiteko. Bilbon apirilaren 22tik maiatzaren 1era bitartean egingo dira zine emaldiak, hitzaldiak, antzerki lanak... Artelekun, oster, maiatzaren 16, 17, 30, 31 eta ekainaren 1-3 bitartean egingo dira ekitaldiak.

Periferiak egitasmoaren ekitaldi nagusien eta bertara bilduko diren gonbidatu entzute-tsuen artean hurrengoak apaitzekoak dira:

«Periferiak kultur egitasmoak 3. urtea bete du dagoeneko»

dokumentalaren munduan itzal handiko zuzendari Jorgen Lethen filmen emanaldiak eta hitzaldiak; Joaquin Jorda zinemagilearen filmen emanaldiak; Teresa del Valle antropologoaren eta Dora Salazar artistaren arteko alkarrizketa; Bilboko zubi desberdinetan jaio-



www.periferike.org

ko eta hilko diren (ez dira inoiz gehiago antzeztuko) antzerki lanak; lehen aldiz emango duten Gilles Deleuzen dokumentala; feminismoaren bultzatzaile sutsua den Angela Y. Davisegaz eztabaida; Giovanni Arrighiren berbaldia; Anari, Zura eta Appaloosa taldeek eskainiko duten kontzertua; Iñaki Uriarte arkitektuagaz Bilboko itsasaderrean zehar egingo den ibilbidea, eta abar luze bat.

Periferiak egitasmoaren babesera hurbildu, “gauzak inguratzen dituen begiradan” murgildu gura duenak, beraz, badaki non dagoen bilgunea. ^m

Informazio gehiago: www.periferike.org

liburuak



Laguna
Dennis S. Miles
Txalaparta

Maitatua denak boterea dauka; maitatzen duenak, ordea, ez. Dinamika hau dugu eleberr honen ardatz. Maitatzeak galera ei dakar: maitatzen duenak segurtasuna galduko du, hustu egingo da, eta modu barregarrian miretsiko du maitea. Lewis Carroll, Samuel Beckett edo Eugene Ionesco-ren itzalek argituriko liburu bitxia.



Nire aitaren fusila
Hiner Saleem
Alberdania

Idazle eta zinegile kurdu honek bere haurtzarora eta familiaren istorioa kontatzen digu, Saddam Hussein agintera heldu aurretik hasita, Iraketik ihes egin behar izan zuen arte. Iazko otsailean arrakasta handiz argitaratu zen liburu hau dagoeneko hizkuntza askotara itzuli dute; guretzat, Juan Kruz Igerabidek euskaratu du.

[kirola]

Txapeldun berriro ere

Getxo Artea Rugby taldea Koparen bila Euskal Liga Txapelketa irabazi ostean



Taldeko neskak entrenatze saioan harrapatu genituen

Orain dela 15 bat urte sortu zuen Getxoko Errugbi taldeak andrazkoen taldea. Euskal Liga-txapelketa 13 alditan irabazi dute, azken 11 urteotan jarrian gainera. Aurten ere, euskal errugbi talderik onena izan da. Horrez gain, 2001ean Kopa eskuratu zuen eta iaz txapeldunorde izan zen. Orain, Liga eskuratu ostean, Kopa Getxora ekartzeko asmoa dauka eta bide batez, pasadan urtetik barruan sartuta daukaten arantzatxoa ateratzen ahaleginduko dira errugbilari getxoztarrak. Kopako lehen fasea asteburu honetan (apirilak 23-24) jokatuko dute Madrilen, eta aurrera eginez gero Finala maiatzaren 22an izango da.

Emakumezkoen talde 2 dauzka Getxo Arteak: 17 urtetik beherako gaztetxoena (ez dute txapelketarik jokatzen, baina lagunarteko partidak bai) eta Euskal Liga-txapelketan diharduen nagusien taldea. Horretan 23 bat

jokalari dabilta Gorka Alegria eta Iker Lopez entrenatzaileen esanetara.

Bizkaian emakumezko 4 errugbi talde daude, eta Araba eta Nafarroan bana. Beraz, zaletasunaren inguruan Getxo Arteko kapitain Leire Moralek esan legez: “zaletuen taldea senitartekoei, lagunek eta jokalariei obiek osatzen dute”. Andrazko eta errugbi berbak batera entzutea oraindik ere batzuentzako arraroa da, “batzuei arraroa egiten zaie oraindik, baina emakumezkoen futbolak ateak apur bat gehiago zabaltzen ditu, gero eta normalagoa da; hala ere, kirol gogorra dela, borroka asko dagoela uste dute... ezjakinasun handia dago errugbiaren inguruan, futbol amerikarragaz lotzen dute eta babesgarria daroagula uste dute, eta ez, oso kirol zintzoa da eta ez da hain gogorra; errugbia benetan ezagutzeko Fadurana hurbiltzera animatuko nuke jendea”, diosku Moralek. ^m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 ^{m²}
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETETIKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15

Rafael Sarria > Bizkaiko Zubiko zuzendari kudeatzailea

“Bizkaiko Zubiak galdutako protagonismoa berreskuratzeke lan egin dugu”



Rafael Sarria, Bizkaiko Zubia enpresako bulegoetan

Otsailaren 11n, Bizkaiko Zubiak gizateriaren ondare izateko hautagaitza aurkeztu zuen UNESCOn, eta aitzakia horrek eroan gaitu Rafael Sarriarengana, 1996tik zubiaren ardura duen enpresako zuzendari kudeatzailearengana. Sarria leioaztarra da eta Ibaizabalen alde bietan bizi izan da: Portugaleten eta, gaur egun, Getxon. Berbaldian, batez ere, Bizkaiko Zubia munduan ezaguna izateko ahaleginez jardun dugu.

—Lanean zabiltzate UNESCOk gizateria-ren ondare izenda dezan Bizkaiko Zubia... —Bai, gizateriaren ondare industria-ondare arloan. UNESCOk izendatuta dauzkan 900 inguru ondareetatik 23 baino ez dira industria-ondare. Ahaztuta egon da, eta hortxe dagoz XIX. eta XX. mendeak, oso arin desagertzen dabilen ondare izugarri bategaz. Eta gure zubiak atentzioa emon du, XIX. mendekoa delako eta munduan egin zen lehengoa delako. UNESCOk derrigorrez bete beharreko hiru ezaugarri ezartzen ditu: giza-

kiak asmatutakoa izatea, eraiki zeneko arrazoiak bere horretan irautea eta gizartearen ondo txertatuta egotea. Guk hirurak betetzen ditugu. —Zer balorazio egiten duzu Bizkaiko Zubia kudatzen daroazuzen urteez? —Kontzesioa hartu genuenean helburu argi bi geneuzkan: bata, garraio-linea eguneratzea. Bestea, zubiak galdutako protagonismoa berreskuratzea (izan ere, 1996ra arte ahaztuta egon da guztiz). Eta egin da, baina zubiaren jatorrizko proiektua errespetatuz.

Horri esker, UNESCOren aurrean gizateriaren ondare izateko hautagaitza aurkeztu orduko behar handia eduki dugu eginda. Hamar milioi pezetatik gora eta urtebeteko lana erabili ditugu hautagaitza prestatzen. —Eta antza, fruitu emongo du, ezta? —Bai. UNESCOk dio herrialdeek egin behar dituztela eskaerak. Beraz, gure kasuan Espaniako estatuak aurkeztu behar du hautagaitza. Baina Estatua munduan ondare gehien daukan bigarren herrialdea da- Italia ostean, oker ez banago-, eta beraz gainerako herrialdeen etsairik handienetakoa da.

«Gurea dagoeneko ez, baina munduko beste zubi esekiak arriskuan dagoz»

Bozketetan egurra emoten diote. Baina industria-ondarea izanda... Hasteko, Bizkaiko Zubia edozein motatako lehenengo ondarea izango litzateke Euskadin, eta Estatu osoko lehenengoa ere bai industria-ondare sailean. Bestetik, UNESCOko zuzendari orokorrak laudorio ugari egin dizkio gure hautagaitzari. Busti egin da. —Zuen ekimenez, Zubi Transbordadoreen Munduko Elkartea sortu zenuten, orain urte bi, geratzen zareten mota honetako zortzi zubiok. Zein helburugaz? —Hiru batez ere. Lehenik eta behin, industria-ondarea ez dadila desagertu. Bigarren, gizakiak garai gogor haietan egindako beharra aintzat har dadila. Eta hiru, Europako Batasunaren diru-laguntzak eskuragarri edukitea, horretarako gitxienez hiru herrialdetako kideak egon behar dira eta. Hiru horiek, baina, batez ere, lehengo biak. Ez daitezela zubiok desagertu. Izan ere, gurea dagoeneko ez, 1984an Eusko Jaurlaritzak ondare historiko-artistiko izendatu zuelako, baina gainerakoak arriskuan dagoz. m

Esakere > “Abi iñ ordureko txori ill”



Medide eta sasoia. Meloia goxo-goxo jaten da uden, baia meloia osorik jan ezkeron ezkara ibiliko lar gusture. Ardaurik onenak bere itxunte itxiko gaituz, eta buruko miñ ederra emongo, altxaten garanen. Bromatxu bategaz barre egingo dogu, hamar bromagaz abrosu. Zorionak pozik hartuko doguz guretzako berezi dan egunen, baia ez doguz ulertuko handik astebetera hart ezkeron. Nori eztako noz edo noz ahaztu erloju udebarriko ordutegire aldatute? Danori ahaztu daku, baia kargutu ta behingon imiñi dogu ordun... ze, ezta gauza ona medide eta sasoi barik ibilte.

Esakera hau Iñaki Gilisastin “Berba Lapikokoa” liburun topako dozue.

57

Gureberbakere

ZELAN ESAN

Nora goazen eta nondi(k) gatozen

Testua: **Xabi Bilbao**

Zelan galdetu

Nora zoaz hain belu?

Nóndi(k) zatoz sasoi honetan?

Nóraño heldu zare auto zaharrágaz?

Zetan (zertara) zoaze oiñ kánpora?

Zetáti(k) zatoze órdu honetan?

Erantzunek

Nora?

Ettxera, kalera, erre kara, mendire, pórture.

Íngiruko étxetara, auzoko káletara, Bízkaiko

erre kara, gure ménditera, kostako pórtutera.

Ixe koana (izekoarengana), ámamana,

Andoniana, Máriana.

Ixe kokana (izekoengana), léhengusukana,

agintárikana, máisukana.

Barrikerá, Berangora, Erandíora, Getxora,

Leioara, Pléntzire, Sopelara, Urdulizera.

Nóndi(k)?

Etxétik, kalétik, erre katik, mendítik, pórtutik.

Étxetatik, káletatik, erre katatik, ménditetik,

pórtutetik.

Barrikétik, Berangótik, Erandíotik,

Getxótik, Leioátik, Pléntzitik, Sopelátik,

Urdulizétik.

Zetan / zetáti(k)

Beharren noa, afálduten doa, yántza

(eg)ítén goaz, Athlétik íkusten doaz danak.

Uger (eg)ítetik dator, Athlétik íkustetik

gatoz, arda ugeri édatetik datóz.

Aditzek

Jon (yon ahoskatute) eta etorri. Aditz biek kasik batuan lez esaten direz:

Noa, hoa, doa, goaz, zoaz, zoaze, doaz.

Nator, hator, dator, gatoz, zatoz, zatoze, datoz.

Yón, yóten, yóngo

Etorri, étorren, étorro

Beste aditz batzuk

aitu (begiratu), áturen, áituko agertu, agértuten, agértuko alléga, allégaten, allégako bóta, bótaten, bótako eskápa, eskápaten, eskápako heldu, héltzen/héduten, hélduko sartu, sártzen/sártuten, sártuko urten, úrteten, úrtengo yáusi, yáusten, yáusiko

Adibide batzuk

—Ta ordun otsok: "Norá zoaz Txanogorritxu?", ta berak, "ámaman etxera, pastéltxu bet éroten". —Horréaz gánoreaz ezare hélduko iñora bérez.

—Guri laguntzio eztaku étorren inón-di(k) bérez.

—Hori iñ baño lehélau zoz úsabana (ugazabagana) baimena eskátuten.

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Antxoak

Plater hau klasiko bat bihurtu da gure atal honetan; izan ere, urtero antxoaren sasoia den honetan errepikatzen dugu-eta. Jakin badakizuen antxo hamaika modutan presta daiteke: binagretan, albardatua... Edozelan ere, beti gozo. Esan bezala eta urtero legez, antxoak kazolatxoan proposatzen dizuet; errezeta erraza eta edozein gonbidaturen aurrean sukaldari onaren itxura emateko oso baliagarria. Hasteko txikitu berakatz ale batzuk pipermin aleekin batera, oliba oliotan sutan ipini kazolatxoan. Berakatz urreztatu baino lehen, bota basokada erdi ozpin eta ardao zuriko beste horrenbeste. Olio berotutakoan, bota antxoak (800 gramo, buru barik eta tripak kenduta) eta perrexil apur bat. Itxaron bost minutu eta mahaira! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

800 gramo antxoak • berakatzak • pipermin aleak • basoerdi ozpin
basoerdi ardao zuri • oliba olioak • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Zer ote da dekantazioa?

«**Dekantazioa ardao aireztatzeko eta denborarekin sortzen zaizkion sedimentuetatik bereizteko erabiltzen den teknika da**»

Ardaoaren dekantazioa behar-beharrezko teknika zen antzinako ardaoetan, batez ere ekoizteko moduagatik. Gaur egun, oster, ardao zaharretan baino erabiltzen ez den teknika dugu.

Dekantazioa ardao garbia eta bere zikina banatzea da; hau da, ardao denboraren poderioz sortzen zaizkion sedimentuetatik bereiztea. Helburua ardaoan sakabanatuta dauden partikula hauek sortzen duten itxura desatsegina saihestea da eta era berean, partikula hauek ahoan igartzearen desplazerra alboratzea. Dekantazioa ardao oso astiro botilatik decanter-era (edo pitxer batera) pasatzean datzan teknika da.

Dekantazioaren beste onura bat zera da, ardaoak arnasa hartzen duela eta horrela aireztatu eta asfixia usainak galtzen dituela. Baina kontuz, bortizki eginez gero, kalterako izan daiteke dekantazioa.

Hortaz, zera esan daiteke laburbiltzeko:

- Hondarrak (posoak) dituzten ardaoak baino ez dira dekantatu behar.
- Azken bolada honetan, gazteegiak diren ardaoak dekantatzea gomendatzen da, berez duten indarra apur bat gal dezaten.
- Gehiegi airezta ez dadin, azken unean dekantatu behar da beti ardaoak. ^m

[nonerosi]

La moderna

urdaitegi alemaniarra Areetan



Enrique Thate eta Xabier Bizkaia ditugu urdaitegiaren bultzatzaileak

1932an Hermann Thate alemaniarra Bilbora heldu zen, euskaldun bategaz ezkondu eta “La Moderna” izeneko dendazabald zuen. Harrezkerotik, Bilboko Astarloa kalera hurbildu izan direnek Alemaniako jaki tipikoak dastatzeko aukera eduki dute. Euskal Herrian bizi den Thatetarren hirugarren belaunaldiak (Hermann, Alfred, Enrique eta Carmen neba-arrebek) eurek egunero egindako hestebete eta produktu alemaniarrek Areetan eskaintzen dituzte urtarilaren 10az geroztik. *“Hemen ireki dugu urdaitegia Bilbon bageneuzkalako aspalditik Areetako bezero asko”*, diosku Enriquek.

Eskaintza benetan zabala eta gozoa da: mota askotako saltxitxak (zuriak, Frankfurt, currygaz...), haragi-pastela, odoslostea mihiagaz, Alemaniako han-

burgesa eta mortadela, saltxitxoi egosia, ukondoa eta basurde-burua, besteak beste. Eta hestebete horiei guztiei laguntzeko, saltsak eta ziapeak; eztarria bustitzeko, berriz, ardao zuriak eta hain gorai-patuak diren garagardo alemaniarrek. Gainera, erositakoa paperaz bilduko dizute kordel bategaz lotuta, pastelak balira bezala: “Bereizteko ezaugarria da”.

La Moderna-ko bultzatzaileek Müller-Dani Athleticeko Lagunarte Alemaniarrak laster aurkeztuko dutela aurreratu digute, “eta urdaitegia Uribe Kostarako egoitza izango da”; Bilbokoak ehunka bazkide dauzka, eta “Ein Prosit Bilbao” jatetxearen inguruan bildu ohi dira. ^m

LA MODERNA
Urkijo 18, Areetan
T. 94 602 02 50

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G **GOZOLABEA**

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROLO PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94



aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Kantak dioen antzera harentzako
Ilargia lapurtuko zenuke gauero.
Baina abestiari kasu egin ez, beste
izar baten bila abiatzea hobe duzu.
Buruan irudikatu duzun amodio
istorio horrek ez dauka ez hankarik
ez bururik.

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Lagun horrek erakartzen zaituela argi
dago, baina zuen arteko maitasun
bideak ez dira inoiz gurutzatuko, eta
gurutzatuko balira auto istripu benetan
larria gertatuko litzateke. Daukazuna
ondo zaindu ezazu, etzazu deabruaren
eskurik onartu.

ADARRA
t




(Otsailak 19 martxoak 20)
Kirikino edo sagarroiaren modukoa
zara, zuere burua babesteko arantzak
tente ipintzen dituen, baina
barrenak bigun-bigunak dauzkana.
Pena da batzuek kanpo alde bakarrik
ezagutzea. Zure alde goxoa sarriago
erakutsi beharko zenuke.

AITZURRA
t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Saltsa guztietan ibiltzea gogoko duzu.
Gauza asko egiten hasi eta bat bera
ere ez du amaitzen. Zergatik ez zara
ahalegintzen gauza gutxiago egiten,
baina gutxi horiek amaitzen? Batek
baino gehiagok eskertuko dizu.

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Harrigarria da jatea hainbeste gogoko
duenak sukaldean ezer prestatzen ez
jakitea. Bokatak egiten besterik ez
dakizu! Momentuz amak egiten
dizkizu lapikoko gozoak, baina ama
ere erretiratuko da eta orduan...

EGUZKIA
t




(Maiatzak 20 ekainak 18)
Heldu da aste-akabua eta jantzi du zure
aurpegiak irribarra. Astelehenean begi-
zulo ilun-ilunak edukiko dituzu, logura
handia ere bai, baina gero gerokoak.
Aste akabu ahaztezina izango da, baldin
eta gogotsu ekiten badiozu.

GARIA
t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Telebista amatatu eta irten zaitez kalera.
Lagunak zugaz egoteko gogotsu daude.
Konta iezaiezu aurrekoan gertatu
zizaitzuna, eta baliteke eurek zuk ulertu
ez zenuen hura argitzea. Denbora
gehiagi ematen duzu telebistari begira!

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Orain dela asko ez duzula film on bat
ikus. Hartu egunkaria, begiratu
zinemaren eskaintza, bat aukeratu eta
zoaz zinemara. Ondo etorriko zaizu
oraingoa parranda ez egitea,
gorputzak atsedean apur bat behar du.

IRATZEA
t




(Abuztuak 18 irailak 16)
Aspaldi gura zenuen hori laster gauzatu
daiteke. Hala ere, adi ibili beharko duzu,
osterantzean, aukera albotik pasako zaizu
konturatu barik. Bestalde, sexu
harremanetan etzazu arrisku txikienik ere
hartu. Kontuz ibili!

META
t



(Irailak 17 urriak 16)
Bizitzak gurutze baten erdian
ipiniko zaitu. Zein norantza hartuko
duzun tentu handiz erabaki, batera ala
bestera egin ez gero ondorioak ere horren
araberakoak izango dira-eta. Ondo
pentsatu!

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
Bidaizteko aukera edukiko duzu laster.
Bidaia luzea ala laburra izan daiteke,
hori ezin igarri. Hala eta guztiz ere, zora-
garria izango da, sekula ahaztuko ez
duzun horietakoa. Ondo ibili eta
gixxi gastatu!

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Haize berriek astinduko dute zure
bizitza. Ausarta izan behar duzu eta
haize horien ermittora dantza egin. Ez
zaitez beldurtu, zozter berria da,
ezezaguna, baina era berean ona, oso
ona. Bejondeizula!



mungia
oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak									
V	I	A		V	I	R	R	O	Z
O		L	E	T		I	A	P	E
D		I	R	A		U	A		
	A	R	A		L	I	Z		O
V	U	T	A	K	I	Z	T	I	K
S		A	Z		E	T	E	G	E
	O		A	B	I	N		T	R
V	N	E	R	T		V	A	R	A
K		N	O	Z	I	G	A	O	L
N	U	G	A		L	I	Z		B

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Igorreko semea.
- Bi gorpilen gainean irabazten du soldata.
- Zaleen euskal itxaropena da.

> Aurrekoaren erantzuna: Carlos Sobera

> Irabazlea: **Ander Barandika**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Zuri Haitz
Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, *Sopela*
Telf. erreserbak: 645 732 991

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



SONIA SALAK UTZITAKO ARGAZKIA

Gorlizko Aratz Dantza Taldea, 1980

Hona hemen Gorlizko Aratz Dantza Taldeari ateratako argazkia, jendaurrean lehenengoz dantzatu eta gero, bertako frontoian, 1980ko Santiago jaietan; agertzen den plaka, herriko jai batzordeak oparitutakoa da. Garai hartan, bazen herrian euskararen aldeko talde bat eta taldekide batzuen (Puri eta Marta lehenengo begirale biak, Ane Gurrutxaga, Eukene, etab.) lan eta gogo handiari esker, sortu zen talde hau, inolako laguntzarik gabe, gastu guztiak eurek ordainduz (jantziak, bidaiak...) eta, gainera, 100 pezetako kuota ipiniz. Hasiera-hasieran, Puri eta Marta, dantzan bazekitenez, gorliztarrei *Jota* eta *Arin-arin* irakasten hasi ziren. Geroago, jendearen erantzun ona ikusirik, taldea sortzea erabaki zuten eta beraiek izan ziren begiraleak lehenengo urte bietan.

Dantzari haietatik, Idoia Igartua da, gaur egun, taldearekin lanean jarraitzen duen bakarra, begirale bezala; Izaskun Murua oraintsu arte izan da begirale eta Puri Ibarra txistua ikasi eta askotan taldeko txistularia izan zen.

Aurtengo uztailaren 25ean, Santiago Jaietan, 25 urte beteko ditu taldeak eta guk beste horrenbeste opa diogu. Dena dela, zilarrezko ezteiak hilabete lehenago ospatuko ditu, ekainaren bigarren hamabostaldian. Taldearen sorreran eta iraupenean lan egin duzuen guzti-guztiori eskerrik asko eta ZORIONAK! m

Lehenengo lerroa: Mamen Madariaga, Idoia Igartua, Lucia Larrabeiti, Raquel Martin, Arantza Basabe. **Bigarren lerroa:** Txomin Irusta, Puri Ibarra, Carolina ?, Leire Ovejero, Lorea Amundarain. **Hirugarren lerroa:** Itziar Basabe, M. Mar Arrien, M. Carmen Basabe. **Laugarren lerroa:** Igone Amundarain, Amaia Urretxaga, Eukene Ugalde, Silvia Arrien, Kepa Ugalde. **Makurturik:** Itxaso Gabika, Victoria Eugenia, Marta Paredes (begiralea), Izaskun Ibarretxe, Belen Urrutia, Monica Lechuga, Gladys Zarraga, Puri Rego (begiralea), Izaskun Murua.

AURORA BELTRAN > musikaria

“Inor ez dela pefektua ikasi dut”

Testua: Jon Urresti



Defini ezazu zeure burua.
Akaso gainerakoek neska gogortzat naukate, baina ez naiz halakoa, inola ere.

Zein animaliaz gatzat bat?
Hiru katu dauzkat, eta ni bezalakoak dira: inpedienteak, maitekorrak eta egun batzuk bakarrik egon daitezke.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?
Patrick Süskind-en *El perfume*, oso ondo deskribatzen duelako usaimena bezalako zentzumena. Sherlock Holmes-en zaletu amorratua ere banaiz.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Frank Sinatra protagonista zeukan *El hombre del brazo de oro* pelikulak harritu ninduen, oso bortitza da.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Nire historia pertsonalean, aitagaz geratzen naiz.

Zure jakirik gogokoena.
Gazpatxo urte osoan. Nire jatorria gogorarazten dit, andaluziarren alaba naiz-eta.

Aitor dezakezun bizio bat. Noizean behin Play Stationean jolastu.

Oporretara joeteko lekurik aproposena.
Iaz Formentera uhartea aurkitu nuen, ikusi dudana urik turkesena.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Oso tolerante bihurtu naiz. Inor ez dela perfektua ikasi dut urteakaz.

Zer janzten duzu lo egiteko? Bularretakoa kentzen dut.

Ezin zaitezke bizi... Gitarra barik.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiarena.
Eltxo-sare bat ohe gainean paratzeko. Oraindik ez dut ipini.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?
Fusio hotza aurkitu dela, mundu osoak eskura daukala doako energia.

...Eta sineskeriaren bat.
Kontzertuen aurretik “manitú” egiten dugu. Horrela deitzen diogu eskuak elkartzen ditugulako.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?
Atzo bertan, baina ez dut gogoratzen zergatik. Egunero negar egiten dudala uste dut. Oso sentikorra naiz, edozein unean erraz ateratzen zaizkit malkoak. m

LABURREAN — Tahures Zurdos-eko abeslari, gitarra-jole, musikagile eta bihotza izan da ia hogeitaz urtez. Hamarkada bi laukote nafarra aurrera ateratzen eta borrokatzen kosta ahala kosta; izan ere, rockaren bide luzea eta okerra oztopoz josita egon ohi da. Aurora Beltrán (Iruñea, 1964) hamahiru urtegar hasi zen lehenengo abestiak egiten; horietako bat, *Muerte ven*, Tim Burton zuzendariaren gustukoa ei da. Belladona taldean jardun ostean, Tahures Zurdos osatu zuen Lolo nebagaz batera 1987ko martxoan. Guztira, estudioko zortzi disko, hiru bilduma eta zuzeneko bat (azkenengoa eta 17 izenburua daukana) argitaratu dituzte. Madrilen eman zuen taldeak lagurraren kontzertua, iazko urrian. *Tocaré*, *Una noche de amor*, *Chicas fuertes* edo *Afiladas palabras* bezalako kanta apartak entzutea nahikoa da Auroraren izaera eta nortasuna sumatzeko. Bere gorabeherak izan ditu diskoetxeakaz, eta askotan ez du euren babesa sentitu; baina hala ere, oraindik jarraitzen du musikari lotuta, kontzertuak ematen nongura Eva Rada ondoan daukala. Bidean askatasuna irabazi duela dio.

Zeurea da aukera:



Getxo

UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskara zerbitzua

GETXOKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA

Basagoiti, 20 Etxe Sorgindua

48992 Getxo

Tel.: 944 660 010

euskara.teknikaria@getxo.net

Jarraitu euskaraz



Matrikula zaitez **D**ereduan

Batxilergoa / Bachillerato
Lanbide Heziketa / Formación Profesional

Aukeratzen dozuna aukeratzen dozula,
euskaraz!



KULTURA BALE
RECURSOS PERKINAKO Zerbitzua
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Voceros de la Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura



ALKARBIDE